

51

500 pezeta / 20 libera • 2000ko URRIA euskal heziketarako aldizkaria

hh
hik hasi

ELKARRIZKETA: XOSE ESTEVEZ
UDAKO TOPAKETEN ONDORENA
• TEORIAK: HOWARD GARDNER
BERRIAK



GATA
heziketa
guztion erantzukizuna

**orrialde
osoko
iragarkia
IBAIZABAL**



gaia

HEZIKETA

Gela barruko lana hasi da,
Tru eko Egunsenti Haur
Eskolako Moldatze Aldia
eta Juanjo Otaño heziketaz
mintzo



elkarrizketa

XOXE ESTEVEZ

Deustuko Unibertsitateko
Historia irakaslea

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

HEZIKETA guztion
erantzukizuna da

Inma Ajona eta Juanjo Otaño

18 **elkarrizketa**

XOSE ESTEVEZ

24 **hik hasi Udako Topaketak**

28 **ekarpena**

**Kristau Eskola Euskal
Hezkuntza Sistemari**

Felix Ezama Esnaola

31 **berriak**

Zatoz jolastera! bidea. Sortzen-Gurasoak
gutuna. Paulo Freire buruzko kongresua...

36 **argitalpenak**

37 **teoriak**

Howard Gardner (I)

Maria Luisa Sanz de Acedo

XANGORIN Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 IASARIE-ORIA GIPUZKOA. Tel.: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Lege
Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airiña Aziproz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola.
Mikel Estorba, Arantxa Goiburua, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe.
Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goia, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Utraza,
Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sodupe. diseinua: TRAM Grafik maketazio,
aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2000/X/2.
Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik
hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

hik hasik

Zure

harpidetza

behar du



5.000 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea

ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160

LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

editoriala

urria

Arian-arian, etenik gabe, bidea eginean !



Euskal Eskolaren
Txupinazoa erasoen
aurrean lekua
hartzeko
proposamena

Janzki berria jantzi dugu! Kolore, letra mota eta itxura berriz irakurriko gaituz aurrerantzean. Baina erne, berehala ohartuko zara itxurazko aldaketa izan dela soilik. Izena eta izanari, mamiari, eusten diogula, nola bestela!

Eta honekin, seigarren ikasturteari ekiten diogu. Gure sorreran hartu genituen konpromisoari arnas berria emateko berrikuntzak eginez, arian-arian, etenik gabe.

Etenik gabe diharduten beste batzuk Espainiako Hezkuntza Ministerioak dira. Euren Humanitateen gaiarekin tema hartuta. Azken hiru urtetan lantzean behin erasoaldiren bat egin dute gizartearen erantzuna neurtu nahiean. Baina bistan da bitartean euren asmoa gorpuzten doazela eta itxura guztien arabera aur-

tengo ikasturtean Humanitateen dekretua gauzatuko dela Espainian eta Hego Euskal Herrian.

Eraso hauen aurrean jaso dira protesta ahotsak, Hezkuntza alorretik batik bat. Azkena, uztailean "Euskal Eskolaren txupinazoa" leora bildu ziren hezkuntzako hainbat sindikatuk, Guraso Elkartek, Ikasle Taldek eta Irakaskuntzako Erakundeek egin zuten agerraldia. Bertan plazaratu zuten idatzian Hezkuntza Erki-degoari zuzenean eta Gizarteari orokorrean proposamen zehatza luzatzen zitzaion: erasoen aurrean erantzun hausnartua, eztabaidatua eta zabala emateko beharraren aldarrikapena.

Txupinazoa jaurtikita dago. Orain, ikasturte berriaren hasierarekin batera, lehengo asmoei eutsi

eta indarberriturik lanean jarraitzeko adierazpena egiteko garaia da. Erasoen erantzun dinamiketatik urrundu behar da. Gure bidea diseinatu eta ildo horretan lanari heldu behar diogu, etenik gabe, gure erritmoan.

Euskal Herriak urte luzez, mendetan, Frantzia eta Espainiarekin lotuta du bere historia. Eta bi estatu hauek euren begiekin ikusitakoa kontatu dute euren ahoz. Euskal Herria askoz lehenagotik, Europako beste herri zaharren antzera, historian zehar gorpuzten joan da bere kultura. Euskal Kultura honetan oinarriturik bere Hezkuntza antolatzeko eskubidea du, orain determinazioa behar dugu. Guk ere gure historia kontatu behar dugu. Zertarako da eskubidea biderik ez badago? Abia gaitezen!

kronika

Iparraldeko Ikas-Bi elkarteak aurtengo sartzea oso txarra izan dela adierazi du. Miarritzeko Fal kolegioan, Baionako Marracq lizeoan eta Donibane-Garaziko Nafarroako lizeoan gela elebidunak irekitzeko egin eskaerek ez dute erantzunik jaso. Antzeko egoera jasan dute ama eskola eta lehen mailako eskola batzuek. Bien bitartean gela elebidunetako ikasle kopuruak gorantz jarraitzen du. Hori dela eta, zenbait eskolatan irakasle postuak eskas gelditzen ari dira, Hazpainen, Hiriburun Donibane-Lohitzunen, Hendaian eta Ahetzen kasu. Egoera horiei irtenbidea emateko Ikas-Bik mobilizazioak egin ditu.



Aurreko ikasturteko erronkak indartu nahi dira EAEn

Ikasturte berria martxan jarri da, baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez du berrikuntza handirik iragarri. 2000-2001 ikasturtean aurreko urtean abian jarritako ekimenekin jarraitzeko asmoa duela adierazi du Inaxio Oliveri Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak.

Alde batetik ingelesaren irakaskuntza bultzatzeko ekimenari eutsiko dio. Ikasturte honetan 230 ikastetxe hasiko dira 4 urteko ikasleei ingeleza irakasten.

Beste aldetik, informatikaren aldeko apustuarekin jarraituko duela ere iragarri du. Hurrengo hiru urteetan ikastetxe guztietan ezarriko dira ordenagailuak, eta internet edukitzeaz gain, elkarren artean lotuta egongo dira.

Aipatu bi asmo horiez aparte, Eba-luaketa Erakundea martxan jarriko da. Oliverik iragarri duenez, tresna honekin hezkuntza sistemak dituen gabeziak denbora gutxian konpondu ahal izango dira.

Arartekoarengandik etorri zaigu beste berrikuntza bat. Izan ere, giza eskubideetan oinarrituta material bat prestatu du ikastetxeetan banatzeko. Gelan giza eskubideen balioak lantzeko burutu daitezkeen ariketak proposatzen dira material honetan, eguneroko jarduna asko aldatu gabe erabil daitezkeelarik. Irakasleek horrelako lan tresna baten beharra zutela ikusita prestatu dute: ariketa errazekin eta material eskuragarriarekin egin daitezkeenak. Zenbait ikastetxetan frogatuta gisa erabili dira eta irakasle talde batek aztertu zituen ikasleen beharretara ongi egoki ziteken.

Momentuz Lehen Hezkuntzarako ariketak prestatu badituzte ere, jarraitpena eman asmoz, hasi dira DBHrako materiala prestatzen. •

dira mugitzen proiektu zahar eta berriak.

Guk fantasiari garrantzia ematean, haurrak bere burua eta izamoldea aintzakotzat hartua ikusten ditu. Eta hori da haurren arimari eman dakiokkeen sendagairik ez-tienetakoa.

Juan Kruz IGERABIDE



Testu liburuaren merkatzearen inguruan gorabeherak sortu dira

Testu liburuak saltzeko Espainiako Gobernuak onarturiko Erret Dekretu berria indarrean dago aurten, eta aldeko zein kontrako jarrerak piztu ditu.

Dekretu horren ondorioz, testu liburuaren salneurria merkatzeko aukera zabaldu egin da. Lehen %12ko beherapenak egin baldin bazitezkeen, orain %25 artekoak egin daitezke, eta zilegi da liburuak kosta-prezioan saltzea.

Pozik eta baikor hartu zuten neurri hau guraso elkarteek eta kontsumitzaileen elkarteek. Testu liburuaren doakotasuna lortzeko bidean pauso bat dela adierazi dute, baina ez dela nahikoa halere.

Bestalde, liburudendak kexatu egin dira, batik bat liburudenda txikiak. Hauek diotenez, salmenta toki handiek prezioak merkatzeko ahalmena badute, baina liburudenda txikiak ez. EAEn urte honetan 300 eta 400 milioi pezeta artean galduko direla iragarri dute.

Bien bitartean, salmeta toki handietan ikusi ditugu merkatzekak, baina Kontsumitzaileen Elkarteak salatu duenez, merkatzeko horiek ez dituzte legez egin. Batetik, ez dutelako azaltzen kosta-prezioan saltzen dituzten liburu horien abiapuntuko salneurria zenbatekoa den. Eta bestetik, merkatzekak egiten dituztenean ez dutelako adierazten zein zen aurreko prezioa.

Legeak dio merkatzearen zenbatekoa argi eta garbi azaldu behar dela. Horregatik, gertatutakoak gertatuta, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak zigorraren atariko eginbideak hasi ditu aipatu egoera eman den saltokietan. Hemendi aurrera ikusi beharko da zer gertatzen den. •

Berrikuntzaz baino gehiago, oztopoez hitz egin behar dugu Nafarroako ikasturte hasieraz mintzo garenean. Esaterako, Berriozarko Mendialdea eskola publikoan gela elebidunak badituzte, baina 4 urteko gelan haur gehiegi daude. LOGSEren arabera, 25 haurrek egon behar dute gehienez 3-6 urteko geletan, baina Mendialdean 26 daude.

Gelaren bikoizketa eskatzea aho batez onartu zuten udalbatzan, eta Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariarekin bilera bat ere eskatu zuten. Oraindik, ordea, ez dute erantzunik jaso.

Bestalde, Nafarroan 0-3 zikloa ezartzeko plana egin zuen Hezkuntza Departamentuak.

Printzipioz 43 udalerritan jartzeko asmoa baldin bazuen ere, momentuz Lodosan baino ez da ezarri. Dena dela, Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak adierazitakoaren arabera, epe motzera ezarriko da sarea beste udalerrietan.

Beste datu baten berri ere eman du Laguna kontseilariak. Alegia, Hezkuntza

Departamentuak eskola garraiorako plan orokor bat jarri duela martxan. Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako 11.860 haurren garraioaz arduratuko diren 125 ibilgailu kontratatatu ditu.

G A I A

Heziketa

guztion erantzukizuna



400.000 ikasle baino gehiago dira Euskal Herri osoan ikasturtea hasi dutenak, eta horietako askok guztiz euskaraz egingo ditu ikasketak (D ereduan). Euskaraz eskolartzeko eta ikasteko hautua egiten duen ikasleen kopuruak igotzen jarraitzen du, azken urteetako joerari jarraiki. Ikasturte hasieran kezka ugari izaten ditugu irakasleek, gurasoek eta ikasleek. Bata, eskola eta ikaslearen arteko topaketa; ikasleak gustura hasten al dira? Ongi egokitzen al dira? Moldaketa aldi bat behar izaten da eskolako bizimodura egokitzeko.



Gela barruko lana hasi da

Euskal Herri osoan 400.000 ikasle baino gehiago dira jadanik ikastetxe-etan daudenak. EAEniaz baino 12.080 ikasle gutxiago izango dira, denetara 307.034 izango direlarik Lehen Hezkuntzan, DBHn eta DBHOn. Nafarroan, aldiz, matrikula kopuruak gora egin du, iaz baino 2.700 ikasle gehiago direlarik aurtan. Igoera hori Haur eta Lehen Hezkuntzan nabaritu da, DBHn jaitsi egin baita.

Ereduei dagokienean, EAEn 3 urteko 9.814 haur hasi dira D ereduan, matrikulatuen %58,6a, iaz %56,8a izan zelarik. B eredua %31,3k hautatu du (iaz %32,2k) eta A eredua %9,3k (iaz %11k). Ikusten denez, eskolartzeko orduan euskarazko eredua aukeratu duten haurren kopuruak igotzen jarraitzen du, azken urteetako joera mantenduz. Haur eta Lehen Hezkuntzan %51,1 ikasle daude aurtan D ereduan eta DBH %38,8.

Nafarroan 3 urteko 1.500 haur hasi dira D ereduan, kopuru osoaren %30,6. G ereduan, aldiz, %40,48 matrikulatu dira. Aurreko ikasturtean %28,8 matrikulatu ziren D ereduan eta %42,3 G ereduan. A eta B ereduko kopuruak mantendu egin dira gutxi gorabehera (%58,5 eta %0,26 hurrenez hurren). Azken urteetako joerari so eginez, argi dago gero eta guraso gehiago direla 3 urteko haurrak euskarazko ereduetan hasten dituztenak, eta hurrengo mailatan ere eredu horretan jarraitzen dute.

Iparraldean Seaskako ikasle kopuruak gora egin du maila guztietan; 593 ikasle hasi dira Ama Ikastolan, 765 Lehen Mailan, 389 Kolegioan eta 104 Lizeoan. Iaz guztira 1.330 ikasle baziren, aurtan 1.851 dira. Eskola publiko elebidunean ere Lehen Mailan 2.195tik 2.376rako igoera jazo da. Eskola giristinoetako gela elebidunetan Ama Eskolan eta Lehen Mailan 1.117 haur izanen dira aurtan, eta Kolegioan eta Lizeoan 244.

Oztopoak oztopo, euskal irakaskuntzaren aldeko lanak fruituak ematen jarraitzen du. Gero eta haur gehiago dira euskarazko ereduetan ikasten dutenak. Beheko mailletako kopuru horiek goiko mailetan ere mantentzen eta gehi daitezkeen jarraitu behar dugula lanean.



G

Moldatze aldia

Ikasturte hasieran chikoa da eskolara negarrez doazen haurrak ikustea, batez ere haur eskoletan. Izan ere, familiakoengandik urruntzea gogorra egiten zaie askori. Banaketa hori laguntzeko eta errazteko ahalegina egiten dute haur eskola askotan, eta horietako bat da Iru eko Egunsenti Haur Eskola. Moldatze aldia deitzen dioten epean haurrak familia-koekin joaten dira haur eskolara. Lehenengo egunetan haurrak eta familiakoak elkarrekin egoten dira gelan, eta gero, haurrak ohitu ahala, familiakoak eurekin egoten diren denbora murritzuz joaten da.

Haurrek eta familiakoek moldatze aldia nola bizitzen duten jakiteko Egunsenti Haur Eskolara bertara hurbildu gara. Iruñeko Txantrea auzoan kokaturik dago eta Iruñeko Udal Haur Eskoletako bat da. D eredua eskaintzen du, eta auzoko haurrak ezezik, Iruñea oso-koak joaten dira. Aurten guztira 82 haur hasi dira: 14 txikiak gelan, urtebetekoak 15, erdikoak 21 eta handiak 32. Horrela, lau taldetan banaturik daude eta bakoitzean bi irakasle edo hezitzaile daude.

Goizeko 7:30ean irekitzen dira Egunsentiko ateak eta 9:30 bitartean etorzen dira haurrak, ordu horretarako denak eskolan egoten direlarik. Irten, berriz, 3:00ak eta 4:30 bitartean irteten dira, batzuk lehenago eta besteak beranduago, familiakoak etortzen direnean. Beraz, bai goizean eta bai arratsaldean, bai sartu eta bai irteteko, ordu-tegi malgua dute, ordu eta erdiko denbora tartea baitute.

Moldatze aldia

Haur txikiak eskolara joaten direnean familiakoengandik urruntzen dira. Ordura arte gurasoekin, aiton-amonekin edo beste norbaitekin etxean egoten ohituta zeuden, eta espazio berri batera joateak aldaketa dakar berekin, bai leku berria delako, bai familiakoengandik aldentzen direlako eta bai pertsona berrieekin topatzen direlako. Egoera berrira moldatu egin behar izaten dute, bai haurrek eta baita familiakoek ere, eta horretarako denbora behar da. Prozesu horri moldatze aldia deitzen diote Egunsenti Haur Eskolan. Haur bakoitzak sentimendu mailan (sentimendu hunkiorrak, sozialak eta intelektualak) bizi duen bidea edo prozesua besterik ez da, bere familiarengandik aldentzeak suposatzen duena eta eskolan sartzeak eskaini diezaiokiena kontuan hartuz.



Moldatze aldia maitzean hasten dutela azaldu digu Inma Ajona Egunsenti Haur Eskolako arduradunak. "Maitzean matrikula egitera etortzen direnean hasten da prozesua. Matrikulatu ondoren, ekainean bilera bat egiten dugu familia guztiekin".

Aipatu bilera familia guztiekin batera egiten dute eta moldatze aldia zer den, nola eta zergatik burutzen den, zer suerta daitekeen eta abar azaltzen zaie zehatz-mehatz. "Aurreko urteetan ibilitako haurren familiakoek ezagutzen dute prozesua eta beti esaten diogu norbaiti bere esperientzia azaltzeko; nola sentitu ziren, nola bizitu zuten prozesua... Oso baliagarria izaten da. Izan ere, ezberdina da irakasleok kontatzea edo beste familia batekoek kontatzea, beraiek baitira esperientzia bera bizitzen ari direnak".

Aldi berean, eskola ezagutzen dute, eta horri garrantzi handia ematen diotela azpimarratzen du Ajonak. "Izan ere, moldatze aldian oso garrantzitsua da haurrak moldatzea, baina moldatu aldia familiakoekin hasten

da. Hauek konfidantzaz etortzen bada dira ziurrago sentitzen dira eta haurrak beste jarrera batekin ekartzen dituzte. Eskola nola dagoen antolatuta ikusten dute, zein espazio erabiliko dituzten hurrek (jangela, sukaldea, gelak, areto nagusia, jolas lekuak...), eta horrela badakite haurra non eta noekin utziko duten. Izan ere, irakasleak ere ezagutzen dituzte bileran.

Bilera orokor honen ondoren eta haurrak eskolara joan aurretik, abuztuan elkarriketa indibiduala egiten dute familiakoekin haurrari buruz hitz egiteko. "Elkarriketa honetan haurrari buruzko datuak jasotzen ditugu; euren azturak edo ohiturak, zer gauza egiten dituzten gurasoekin eta abar. Baina batik bat familiarekin harremanetan sartzeko da egiten da bilera, konfidantza sortzeko. Izan ere, elkarriketa indibidualak hurbilagoak izaten dira" dio Ajonak.

Abuzturaren 16an hasten da ikasurtea Egunsentian eta eskola poliki-poliki joaten da hurrez betetzen. Sarrera progresiboa da, haur guztiak ez dira aldi berean sartzen. Lehenengo astean batzuk hasten dira, eta astero-astero kopuru hori gehituz joaten da. "Lehendabiziko egunean haurrak familiakoekin etortzen dira eta ordu erdi edo ordubete egoten dira haurrekin jolasten, aldamenean begira, irakaslearekin hitz egiten... Eskola irekia dago familiakoentzat. Ditikoen gelan amak ditia ematera etortzen dira, biberioia ematera, lehenengo bazkaria ematera..." azaltzen digu Ajonak. "Bigarren egunean berdin, eta pixkanaka-pixkanaka haurra bakarrik uzten duten denbora luzatzen joaten da. Haur eta familia bakoitzaren sarrera ezberdina izaten da, batzuek denbora gehiago behar izaten dute eta beste batzuek gutxiago. Batzuei, esaterako, asko kostatzen zaie haurrengandik

bereiztea eta gelatik kanpora oso kezkatuta gelditzen dira, haurra nola egingo ote den pentsatzen. Beste batzuei, berriz, ez zaie hainbeste kostatzen". Denetarik omen dago: seme-alaba gehiegi babesten duena, beraiekin zorrotzegia dena, zein ongi pasako duen azaltzen diona, horretaz hitz egiteari uko egiten diona.... "Ulergarria da kezka edukitzea, eta batzuek tristura ere bai. Bestea batzuk, berriz, lasaiago bizitzen dute prozesua. Horregatik diogu moldatze aldia ez dela haurrarena soilik, baita familiarena ere".

Prozesu hau haur berriein, zaharrek eta beste eskoletatik etorritakoekin egiten dute, guztiekin. "Kontuan izan behar da zaharrentzat ere uda tartean egon dela eta hilabete eta erdi horretan familiarekin egon direla denbora guztian" dio Ajonak. "Gainera, zaharrak ere gelaz aldatu egiten dira



Iruñeko Egunsenti Haur Eskolako ikasle eta gurasoak.



eta irakaslez ere bai batzuetan.

Aldaketa hori ere pixkanaka egiten dugu. Hasi-
ran aurreko urteko ge-
lan egoten dira jolas-
ten eta gero joaten di-
ra berrira. Irakasleak
ere mugitu egiten di-
ra gelaz gela aurreko
urteko haurrak agurtuz
eta beraiekin egonez". Fa-
miliakoentzat bezalaxe, hau-
rrentzat eta irakasleentzat ere irekia
dago eskola eta gela batetik betera pa-
sa daitezke.

Irailaren erdirako haur guztiak es-
kolan sartuta egoten dira, baina mol-
datze aldiak jarraitu egiten du. Batzuk
lehenago eta beste batzuk berandua-
go moldatzen dira. Ajonaren esanetan
"zailtasunik handiena beren familien-
gandik aldentzeak sortzen du. Ez da
alde fisikoa soilik, baizik eta horrek
suposa dezakeena, hau da, ziurtasu-
nik eza somatzea, eta babesik gabe eta
bere ahalmenen aurrean bakarrik sen-
titzea". Aldaketa honen aurrean hau-
rrek erreakzioak izaten dituzte, eta era
askotakoak izan ohi dira: poz izugarria,
irabioa, jarduera mugagabea berria
denaren aurrean, negar bizia, erasoak,
ihes egiteko edo beren gauzei atxiki-
tzeko jarrera gogorak... Ageriko alai-
tasunezko denbora igaro ondoren



(astebete, hilabete...) egoera
berriaren kontzientzia
hartzen dutenean nega-
rrez edo eskola ukatuz
erreakzionatzen du-
tenak ere badaude.

Prozesu honetan
irakaslearen jarrerak
garrantzi handia du.
Ajonak dio garrantzi-
tsuena dela egunez egun
ematen dituzten onespene-
rakutsiak aurkitzea. "Begirada inte-
resgarri bat, irri lotsatia, eskuen estu
aldia, bi haurren edo haurra eta nagu-
siaren arteko kidetasun begirada eta
abar bizitzen ari diren borrokan ia ira-
bazita dauden batailak dira". Haurrek
dituzten zailtasunak ekiditea ezinez-
koa bada ere, gaintitzen lagun die-
zaiekegula adieraztea garrantzitsua
dela azpimarratzen du Ajonak. "Bes-
talde, moldaketarako ez da legerik ez
denborarik jarri behar. Gehiengo-
arentzat baliagarria dena batentzat ba-
liogabea izan daiteke, eta estrategia
egokia bilatu beharko da horrentzat".
Moldatze aldia familien eta eskolaren
arteko elkarrenganako maitasuna eta
konfidantzaren sortzea errazten duen
komunikazio, elkartrukea eta jakin-
tzarako denbora bizitzea da. Hau da,
haurrak eskolan sartzearen arazoa
normaltasun eta baikortasun handie-



naz bizitzea, haurren eta familien, he-
zitzailleen, lekuen eta gauzen artean
sortzen diren aukera personal eta ba-
tasun puntuak errespetatuz.

Ajonak dioenez, urri edo azarora-
ko denak moldatuta egoten dira, or-
duan ematen dute bukatutzat molda-
tze aldia. Prozesua bukatu ostean, el-
karrizketa individuala egiten dute fa-
miliakoekin moldatu aldia nola bizi izan
duten jakiteko, haurrak nola jarraitu
duen, beraiek nola sentitu diren eta
abar. Moldatze aldia bukatutzat eman
arren, familiakoek eskolara etortzen
eta gelan sartzen jarraitzen dute bai
goizean haurrak uzterakoan, eta bai a-
rratsaldean jasotzerakoan. "Horrela ira-
kaslearekin gauzak komentatzeko au-
kera izaten dute. Esaterako, zer mo-
duz pasa duengaua, zer egin duten as-
teburuan, arazorik baldin badu hori
komentatu...". Irakaslearekiko harre-
mana ez ezik, familiakoen artekoa ere
sortzen da egoera honetan.



Utzi? Exijitu? Mugak ipini?

Juanjo Otaño Etxaniz

Mondragon Unibertsitatea.
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Nerabe batek bere gurasoei egingako kritika entzun nion hizlari bati: "Gurasoek ez naute maite. Inoiz ez naute maite izan. Nahi izan dudana egin dut beti. Inoiz ez didate mugarik ipini. Inoiz ez didate ezetz esan. Orain ez dakit, ezin diot neure buruari mugarik ipini".

Zer esaten digu nerabe horrek? Zer eskatzen digu? Agian, gure ezjakintasuna, edo gure inkoherentzia, edo gure askatasunaren nahia eta eskaintza, borondate oso ona eduki arren, berarentzat kasurik ez egitea izango da, edo interes eza, edo maitasun eza. Zer behar du haur batek bere garapenerako? Zer ematen diogu? Zer da haur batek hartzen duena? Zer esan nahi du seme-alabak maite izateak? Beharrezkoa al da mugak edo eskakizunak jartzea? Esan al diezaiekegu ezetz? Beharrezkoa al da ezetz esatea? Laburtuz, zer da hezteak? Nola hezten da? Nork hezten du? Zer da garrantzitsua? Zer ez da garrantzitsua?

Zer da hezteak?

Hezteak esan nahi du gure seme-alabei edo gure ikasleei beren gaitasunak guztiz garatzeko laguntza ematea. Beste era batera esanda, errealitatea ezagutzea eta bertan bizitzea eta mugitzea esan nahi du. Horrela, gure ingurua ezagutzen dugu, ezagupenak geureganatzen ditugu eta ezagupen horiek aplikatzen ditugu.

Nortasuna garatzeak eta bizitzen ikasteak norbere buruarekin gustura sentitzea eta hori lantzen jarraitzea esan nahi du; autoestimua garatzea, norbere burua maite izatea eta norberaren gaitasunetan konfidantza izatea. Hau da, autonomia izaten ikastea, bere buruaren jabe izatea eta erabakiak hartzen jakitea da. Egoerek horrela es-

Haur bat hezitzea ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea da. Prozesu luze samarra da, sehaskan hasten dena eta bukaerarik ez duena.





katuz gero, baietz esaten edo ezetz esaten ikastea esan nahi du. Sormena eta irudimena garatzea esan nahi du. Horren ondorioz, modu errealez, objektiboz eta, zergatik ez, optimismoz beterik, aurre egingo diogu etorkizunari.

Elkarrekin bizitzen ikastea da heztea, hartu-emanak izaten ikastea, eta beraz, hainbat balio garatzea eta lantzea: askatasuna, justizia, elkartasuna, berdintasuna, erantzukizuna, zintzotasuna, errespetua, tolerantzia...

Pentsatzen ikastea da heztea, horrek dakarrenarekin: jakin-mina, iraupena, errealitatea behatzea eta behaketa horretatik ondorioak ateratzea, eta beraz, kritikoa eta auto-kritikoa izatea.

UNESCOren txostenak (1996) oso argi hitz egiten du: "Lau zutabetan oinarritzen da heziketa: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea".

Nork hezten du?

Gaur egun haurren inguruan heziketa eragile asko daude eta mila modutan hezten dute.

Familiak hezten du, eta haurren lehendabiziko erreferentzia markoa da. Segurtasuna, babesa eta maitasuna aurkitzen du haurrak familian. Bertan lehendabiziko ohiturak eta jokabide pautak ezartzen dira, lehenbiziko balioak ikasten ditu, eta afektua hartzeak eta adierazteak esan nahi duenez ohartzen da. Familian lehendabiziko estimuluak hartu eta bearauekin lehenengo ekintza eskemak sortuko ditu, mundua eta bertan gertatzen diren mota guztietako gertaerak interpretatzeko balioko diotenak. Eskema horietatik abiatuz, inguratzen duen errealitatea identifikatzen eta asimilatzen du, ikasteak eskema horietara egokitzea eta aldatzea suposatzen duelarik.

Eskolak ere hezten du, eta sozializazioaren bigarren eszenatokia da.



Heziketa

guztion erantzukizuna

G A I A

G

Eskolak bere mundua zabaltzen du, interes berriak sorrarazten dizkio, eta beti berria, aldakorra eta aberatsa den errealitatea ezagutzen eta moldatzen laguntzen dio helburu eta helmuga berriak proposatuz. Era berean, eskaera eta erronka berriak planteatzen dizkio: itxarotea, konpartitzea, toleratzea, entzutea, eta, aldi berean, azaltzea, parte-hartzea, besteak onartzea, besteak entzutea.

Gizarteak ere hezten du, eta horren baitan, bereziki, komunikabideek. Komunikabideak, batez ere telebista, sozializazio goiztiarraren tresna dira, eta publikoa dena pribatuaren munduan sartzea areagotzen dute. Murgiltze ikastearen bidez, konturatuko ez bagina bezala, sentimenduak eta kezak uniformatzen dituzte, balioak eta jarrerak modalitzen dituzte, eta jolasei eta ekintzei edukiak ematen dizkiete, askotan guraso eta irakasleen funtzioa ordezkatzuz.

Gelakideek eta lagunek ere heitzen dute, bai Haur Hezkuntzan eta baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere, azken bi horietan behar bada indar handiagorekin. Arrakasten eta porroten lekuko eta kolaboratzaile dira gelakideak eta adiskideak, helburu altuagoak lortzeko aliatuak dira, aurrera jarraitzeko estimulua eta akuilua eskaintzen dituzte. Ez dezagun ahaztu arauak eta balioak ere ezartzen dituztela, norberak bere burua begiratzeko, neur-

tzeko, kontrastatzeko, gustura sentitzeko edo deskalifikatzeko ispilu bihurtuz.

Nola hezten da?

Mila modutan egiten da orain arte aipatutako guztia, modu zuzenean eta zeharka, esplizituki eta inplizituki.

Haurra esaten zaionarekin eta esaten ez zaionarekin hezten dugu. Eskaintzen diogun maitasun eta estimuaren bidez hezten dugu. Eskaintzen eta exijitzen diogunarekin hezten dugu, ematen dizkiogun aginduen bidez, egiten uzten eta egitea debekatzen diogunaren bidez, sartzien eta zigortzen dugunaren bidez. Etxean eta eskolan bizi diren jokabide, arau eta balioen bidez hezten dugu, haurrentzat garrantzitsuak eta esanguratsuak diren pertsonen bizi dituzten balioen bidez, praktikatzen diren jarreraren bidez. Bere denbora eta bere ingurua antolatzen ditugunean hezten dugu, lan egiteko, jolasteko edo harremanetarako guneak eta momentuak sortzen ditugunean. Haurrarekin gaudenean hezi egiten dugu, eta haurrarekin ez gaudenean ere hezi egiten dugu.

Haurraren irudi hurbilak izanik, gurasook eta irakasleok, nahitaez, identifikazio elementuak gara, bere identitatea eraikitzeko prozesuan laguntzen diogu heldua izatearen eta pertsona izatearen irudia eskainiz. Horrexegatik, gure jokabideek, gure jarrerak, gertaerei aurre egiteko moduek, gure permitibitateak eta gure eskakizunek haurrari bidea markatzen diote, hazarazten dion bidea, alegia.

Bizitzan zehar ikasten dena bizi dena da, hau da, praktikatzen ikasten da.

Denok hezten dugu uneoro eta modu askotara. Ez dago ordezkorik. Heziketa elkarrizketa da, elkarrekintza da, elkartrukea da, haurrarekin egotea, hitz egitea, konpartitzea, estimulatzea, laguntzea, babestea, ziurtatzea. Ibiltzen eta aurrera joaten laguntzea eta animatzea esan nahi du. Horrek dakar bere gogoei, bere grinei eta bere bizitasunari bideak eta urratsak markatzea, eta baita mugak ezartzea ere. Horregatik, ez dago ordezkorik.

Denok hezten dugu uneoro eta modu askotara. Ez dago ordezkorik. Heziketa elkarrizketa da, elkarrekintza da, elkartrukea da, haurrarekin egotea, ibiltzen eta aurrera joaten laguntzea eta animatzea esan nahi du.



Gure presentzia garrantzitsua da. Pertsona izatearen abenturan bermea eta laguntza ematen dizkio. Baina, ez bagaude, edo gaudenean guztiz permisiboak bagara eta ez baditugu mugak ipintzen, edo inkoherenteak bagara, edo ez badiogu kasurik egiten, bere segurtasun eza eta beldurra indartuko ditugu, ez diogu aukeratzen eta erabakiak hartzen ikasten utziko. Aukerak egiteak eta erabakiak hartzeak zerbaiti uko egitea dakar, beraz aukerak egiten ikastean uko egiten ikasten dugu. Hori guztia egiten dugu gure historia pertsonalean bizi eta landu ditugun balioen arabera eta berauekin koherentzia mantenduz, deskubritzen baitugu dena ez dagoela ondo, dena ez dela posible, eta baita dena ez dagoela gaizki edota dena ez dela ezi-nezkoa ere.

Permitibitatea, exijentzia, mugak.

Laburtuz, haurri errealitatea ezagutzen eta bertan mugitzen laguntzea bere buruarekin eta besteekin bizitzen ikasten laguntzea da, balioak garatzen laguntzea, pentsatzen ikasten laguntzea. Beste modu batera esanda, haur bat heztea ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea da. Prozesu luze samarra da, sehaskan hasten dena eta bukaerarik ez duena.

Hezitzaileari bere planteamenduetan eta jarreretan koherentzia izatea eskatzen zaio eta, aldi berean,

haurrarekiko hurbiltasuna eta elkarriketa, hitz egitea, entzutea, agian denbora galtzea eta, nola ez, baita itunak egitea, adostea eta amore ematea ere.

Eta hori guztia azken helburu batekin: haurrak au-

tonomia pertsonalalortzea, bere buruarengan konfidantza eta segurtasuna izatea, erabakiak hartzeko gai izatea, eskubideak eta eginbeharrak

Sarritan mugak jartzeari beldurra diogu gurasook eta irakasleok, eta aipatzen dugu hobe dela haurrak nahi duena egiten uztea, horrela ez diogula traumarik sortaraziko-eta. Ez da jarrera zuzena, guztiz permisiboak izanik ere erraza baita haurraren beste trauma asko sortzea.

dituela ohartzea eta besteekin bizitzen ikastea.

Heziketa prozesu hori konstantea eta errepikakorra da. Bizitzaren adin guztietan garatzen da, nahiz eta momentu bakoitzak bere berezitasunak eduki. Agian printzipio eta jarrerak orokorrak antzerakoak dira, baina beraien aplikazioa ezberdina izango da 2 urteko haur batengan edo 14 urteko nerabe batengan, adibidez.

Sarritan mugak jartzeari beldurra diogu gurasook eta irakasleok, eta aipatzen dugu hobe dela haurrak nahi duena egiten uztea, horrela ez diogula traumarik sortaraziko-eta. Ez da jarrera zuzena, guztiz permisiboak izanik ere erraza baita haurraren beste trauma asko sortzea: segurtasun eza, zailtasunen aurrean etengabeko porrota, hobetzeko gaitasun eza, frustrazioa toleratzeko gaitasun eza eta bizitzaren aurrean guztiz babesgabe uzteko arriskua.

Nortasun pertsonala eraikitzeak aldamia izango den marko bat behar du haurrak, segurtasuna emango dion marko bat. Horrela haurrak bere eskubideak ezagutuko ditu, eta baita bere eginbeharrak, bere posibilitateak eta bere mugak ere. Bere nortasunaren oinarri izango den euskarri sendoa aurkituko du. Horrek hezitzaileari eskatuko dio eskaerak eta askatasuna dosifikatzea eta oreka bilatzea eskubide eta eginbeharren artean, tinkotasuna eta malgutasunaren artean, eta askatasun eta gainbabesaren artean. Era berean, horrek eskatuko die, bai hezitzaileari eta baita haurri ere, koherentzia izatea jarreretan eta helburu komunak adostekoan eta bilatzerakoan, eta baita adostutako konpromisoak betetzerakoan ere.

Marko hori eraikitzeak lehenengo pausoa hausnarketa gune bat sortzea izango litzateke, hau da, zer egiten dugun eta nola egiten dugun pentsatzea, kritiko eta pentsakor i-

G

Heziketa

guztion erantzukizuna

G A I A



zatea bai gure jokabide eta jarrerekin, eta baita haurren jokabide eta jarrerekin ere. Eta beraz, konpromisoak eta erabakiak hartzea nahi ez diren jokabideak ekiditeko eta horiek onargarriak diren beste batzuekin ordezkatzeko.

Abiapuntua izan daiteke erlazioak definituko dituen marko bat sortzea haurra, guraso, anai-arreba eta etxean bizi direnen artean, edo ikasle, gela eta irakaslearen artean. Haurrak marko hori onartu behar du, eta horretarako beharrezkoa da denon artean eta elkarrizketaren bidez egitea, alegia, haurrak parte-hartzea markoa definitzerakoan.

Ez dugu ahaztu behar, bestalde, hezitzaileak, bere aldetik, haurrarako errespetu eta estimu jarrerak eduki eta adierazi beharko dituela: haurren aldetik errespetua eskatzen badugu, helduok ere haurra errespetatzea eskatzen du koherentziak.

Bada ahaztu behar ez dugun zerbait ere: garatze eta eraikuntza personalaren prozesuan dagoela haurra eta, beraz, akatsak eta hanka sartzak eduki ditzakeela. Baina akatsak helburuak lortzeko bidean ematen diren ahalegin bezala ulertu behar dira.

Bestalde, pixkanakako eskaera progresiboa planteatu behar da, familian, arlo akademikoan edo beste arlotan. Eskaerak logikoa eta ez hautazkoa izan behar du, ezin da helduaren autoritate arbitrarioan oinarritu, eta garatu nahi ditugun balioekin ados egon behar du.

Erlazio marko horrek baditu, beste gauza batzuen artean, muga zehatzak. Izan ere, beharrezkoa da

mugak jartzea. Haurrarentzat -txikia zein handia- segurtasun sistema edukitzea esan nahi du horrek, erabaki bat egokia den ala ez eta bere ondorioak positiboak, negatiboak, onargarriak edo onartezinak diren konturatzen laguntzen baitio.

Bestalde, erabakitzeko aukerak eskaini behar dizkiogu haurrari; are gehiago, erratzeko aukera onartu behar dugu, betiere erratze hori gainditzeko eta bideratzeko aukera emanez.

Behar izanez gero, azalpenak eman beharko zaizkio, berak ulertzeko duen gaitasunari egokituak, noski. Haurra gai da erabaki bat edo arau bat ulertzeko baldin eta azaltzen bazaio eta logikoa bada; horrela ez bada, protestatu eta helduaren arbitrariedade salatuko du.

Agian hori guztia hurbiltasun eta

komunikazio jarrera batean laburtzen da. Horrek negoziatzea eskatuko du eta negoziatzen denean, alde biak bat egiten eta puntu komunak bilatzen saiatzen dira. Alde biek amore ematen dute, alde biek adosten dute, eta, ondorioz, biek irabazten dute, bientzat onak eta garrantzikoak diren eta biei ahalegina eskatzen dien helburuak lortzen saiatzen baitira.

Esan dugun guztia aintzat hartuta, ez dugu entzungo hasierako nerabearen kexua, hots, beti nahi zue-na egiten utzi ziotela eta muga falta horretan berak maitasun eza ikusten zuela.



E L K A R R I Z K E T A

XOSÉ estévez

**Deustuko Unibertsitateko
Historia irakaslea**



E

Historia
zentralista batera
itzuliko garela uste dut,
baina abardura
autonomistarekin



Dekretua
jarri arren,
badago
abagune bat,
baldin eta
lortzen bada
komunitate
autonomoek
beren erabaki
portzentaia
mantentzea,
zentroek
autonomia
maila bat
edukitzea, eta
irakasleek
sentsibiltatea
edukitzea

Galiziako Quiroga
herrian jaio zen Xosé
Estévezek 27 urte
daramatza irakas-
kuntzan. Filosofia
eta Letretan dokto-
rea da eta
Historiako irakasle
da Deustuko
Unibertsitatean
1973az geroztik.
Hainbat liburu, arti-
kulu eta kolaborazio
idatzi ditu, besteak
beste Galeuzcari,
iberiar penintsulako
nazionalismoei, eus-
kal nazionalismoari,
Euskal Herriko histo-
riari eta Galiziako
historia, literatura,
etnografia eta emi-
grazioari buruz.
Historia nazionalis-
tetan oso jantzia
dago.

**Abendurako Humanitateen e-
rreforma ekarriko duen dekretua
egitekotan da Madrilgo Hezkuntza
Ministeritza. Humanitateek erre-
formarik behar al dute?**

Besterik gabe, orokorrean, Hu-
manitateen erreforma beharrezkoa
den ala ez galdetzen badidate, alder-
di batzuetan baietz esango nuke.
Bistakoa da ikasle gehienek defizita
daukatela geografiaren, historiaren,
artearen eta baita hizkuntzaren eza-
gutzan ere, ortografia akats asko egi-
ten baitituzte. Nik klaseetan ikusten
dut oinarriko kontzeptu asko ez di-
tuztela ezagutzen. Alde horretatik, i-
ruditzen zait beharrezkoa dela oina-
rriko kulturaren ezagutzan gehia-
go sakontzea. Kulturaren ezagutza
globala, bai unibertsala eta bai nor-
berarena, sakontzeko premia dago-
ela iruditzen zait.

Aitzitik, Hezkuntza Ministeritzak
erreforma horri eman nahi dion no-
rabidearekin ez nago ados. Espai-
niako historia baztertua, ilundua eta
desitxuratua dagoela argudiatzen
dute, eta historia nazionalistak
gehiegi indartuta daudela. Zentzu
horretan, ez nator bat, argudio ho-
rren aurka nago erabat.

**Nola ikusten duzu Hezkuntza
Ministeritzak planteatzen duen e-
rreforma?**

Nik zintzoki uste dut kanpaina
baten barruan kokatzen dela. Kan-
paina horren asmoa da estatu espai-
niarraren konfigurazioa perspekti-
ba zentralista batetik egitea eta peri-
ferian dauden beste proiektuak baz-
tertzea. Nik uste dut estatu espainia-
rrean ikuspegi jakobinistaren be-
rrindartze bat dagoela, batez ere
Partidu Popularra boterera iristi de-
netik. Eta ez da harrizkoa, gehien-
goa frankismoaren ondorengoa bai-
ta, Franskismoko hierarken semeak
baitira: Gonzalo Robles, Rodrigo Ra-
to, Aznar, Pio García Escudero...

Horiek planteatzen dutena ikuspegi itxi, jakobino, zentral eta frankista batera itzultzea dela iruditzen zait. Halere, ez dut uste mito bezala planteatzera iritsiko lirakeenik, hau da, berriz ere “El Cid Campeador” eta antzeko mitoak erabiltzen hasiko direnik. Hori Europar Batasunaren aurrean barregarri gelditzea izango litzateke.

Frankismoraino itzuli gabe, zer iritzi duzu gaur egun dagoen historiaren irakaskuntzaz?

Euskal Herriko institutueta dauden txosten gehienei begiratu bat bota besterik ez dago. Edonork ikus dezake euskal historiak gehigarri bat baino ez duela osatzen Espainiko historiaren barruan. Esaterako, Antzinako Errejimenaren krisia gaian, Carlos IV. ren erregetza, Independentzia gerra eta Fernando VII. ren erregetza aztertzen dira. Buakaeran eranskin bat dago Antzinako Errejimenaren krisia Euskal Herrian izenekoa, eta hor desamortizazioak, foralitatea, afrantsesada eta lehen guda karlista sartzen dira. Eta hori da Antzinako Errejimenaren krisia Euskal Herrian. Aurreko puntu guztiak Espainiako historiari buruzkoak dira. Gauza bera gertatzen da gainontzeko gaiekin ere.

Horregatik, Euskal Herriko historia Espainiako historiaren zati bat bezala agertzen da. Eta hori, nire ustez, aurre-autonomiara itzultzea izango litzateke, autonomien artean desberdintasunik ez zegoen garaira. Eta horrek ez du loturarik iberiar penintsulako historiarekin.

Zergatik diozu hori?

Historiaurretik XIX. mendera arteko historia aztertzen badugu, Espainiko historiari ez dagoela konaturatuko garelako, baizik eta iberiar penintsulako erreinuen historia. Ereinu horretan batzuk borondatez

eta beste batzuk indarrez, nire ustez zentrotik inposatua izan zen proiektu komun batean biltzen joan ziren. Errege Katolikoaren estatu nazionala eta modernoa sortu zenean, oraindik bazeuden proiektu komun horretan sartu ez ziren zenbait nazio edota sartuagatik beraien nortasun eta berezitasunekin jarraitu zutenak.

Adibidez, Euskadik bere egitura juridiko-politiko-administratiboa mantendu zuen 1876. urtera arte. Kataluniak 1714an galdu zuen indarrez eta konkista militarren ondorioz. Nafarroak bere historia propioa izan zuen 1512ra arte, eta 1876ra arte bere instituzioak mantendu zituen berdintasunaren bideetik sartu zelako, nahiz eta 1841eko legearen ondotik praktikoki ez gauzatu.

Beraz, penintsulako nazio bakoitzaren historia bereziak batzuetan XVI. mendera arte iraun zuen, eta bestetan XVIII. edo XIX. mendera arte. Zer gertatzen da historia horiekin? Desagertu egiten al dira?

Nik uste dut historia komun bat egon daitekeela, baina indarrez edo borondatez ezarri zen ikusi behar da. Adibidez, oraindik ez dakigu Gaztela bide militarra erabiliz edo itun bat sinatuz sartu zen Gipuzkoara. Euskaldun askok hartu zuen parte Gaztelako historian eta Ameriketako abenturan. Baina horrek ez du esan nahi euren nortasuna mantendu ez zutenik.

Etorkizunari begira, dekretuak aurrera egingo duela iruditzen al zaizu?

Diputatuen kopuruari begiratuta eta zenbakien legeari jarraituta bai. Baina ez dakit bere horretan aldarrikatuko duten ala ez, ministerioaren bidetik, alegia. Harritzen nau, zeren lehenengo parlamentutik pasa beharko bailuke.

Nik uste dut dekretua mamitzen



joango direla eta beste indar politikoekin kontsultatuko dutela. Dena dela, PSOE ia guztiz ados egongo da PPK planteatzen duenarekin. Oposizio handiena indar nazionalistengandik sortuko da, baina nahiko posiblea da dekretua aurrera ateratzea. Historia zentralista batera itzuliko garela uste dut, baina ñabardura autonomistarekin. Nortasun kontzientzia indartsua dagoen autonomien erantzuna entzun egin beharko litzateke, Katalunia eta Euskadirena kasu, eta Galiziako zenbait lekutakoa. Autonomia horietako instituzioek zeresan handia eduki beharko lukete. %45a beren esku dute eta portzentaia hori gutxienez mantendu egin beharko lukete. Horrela, kriterio hain bateratzailea eta zentralista izango ez duten gauzak egingo lirateke.

Baina Madrildik jartzen diren

Herri
batek bere
nortasuna
mantentzeko
bi elementu
behar ditu
nire iritziz:
hizkuntza eta
mito
historikoak

minimo horiek asko badira, zer aukera dute instituzio autonomoek euren minimoak jartzeko? Eta zentroek? Eta irakasleek?

Dekretuajarren, badago abagune bat, baldin eta lortzen bada komunitate autonomoek beren portzentaia mantentzea, zentroek autonomia maila bat edukitzea, eta irakasleek sentsibilitatea edukitzea. Gaur egun zentroek gauza asko erabakitzen eta zehazten dituzte. Eta irakasleek ere badute askatasuna materiala aukeratzeko garaian. Horrela, herri bakoitzaren historia eta kultura ezagutzera ematen dituzten liburuak aukera ditzakegu.

Zenbateko garrantzia dute testu liburuak historiaren irakaskuntzan?

Handia. Gainera, beste arrazoen artean, testu liburuak jarraitzeko joera handia dagoelako irakasleen artean.

Ez da ahaztu behar argialetxeek liburu erabat ezberdinak egiten dituztela komunitate autonomoentzat. Argialetxe batzuk sentikorragoak dira kanpoaldeko historiekiko eta zenbait komentaketa testu ere sartzen dituzte. Haatik, dekretuak aurrera egiten badu, testu komenta-

keta horiek kendu egingo dituzte eta komunitateei dagokien zatia urritu egingo da. Frankoren garain bezala, "España grande y libre"ren ikuspegia zabalduko da.

Horrenbesteko garrantzia al dute Historiak eta Humanitateek Espainiako batasun hori indartzeko? Tresna klabeak al dira?

Bai, oso garrantzitsuak dira. Harelere, ez dakit ez ote den ari gehiegi potentziatzen hezkuntzak gazteen adimen garapenean duen boterea edo eragina.

Beste garai batean hezkuntzak eta familiak eragin ideologiko oso garrantzitsua zuten, baina gaur egun bi instituzio horiek ez dute hainbesteko eraginik. Askoz ere garrantzitsuagoak dira lagunen eta komunikabideen eragina, eta horiek ez dituzte kontrolatzen ez eskolak eta ez familiak.

Nik 27 urte daramatzat irakaskuntzan eta konturatzen naiz nik pentsatzen nuenak eragin gehiago zuela lehen orain baino. Gaur egun osatutako pentsamenduarekin etortzen dira unibertsitatera, eta gainera, azkenaldian beldurtu egiten nau ni beraiek baino aurrerakoiagoa naitzela ikusteak. Ez da nik bakarrik du-



dan susmoa, irakasle gehiagok ere esaten du. Nik eduki ditzakedan ideia aurrerakoiek, irekiek, toleranteek, anitzek, nortasun nazionala errespetatzen dutenek, ez dute eraginik beraiengan. Lagun taldeak eta komunikabideek pentsatzen dutenak gehiago eragiten diete.

Nolakoa da komunikabideengandik eta lagunengandik jasotzen duten eragina? Eskola eta familiarengandik jasotzen dutena baino handiagoa al da?

Komunikabideen eragina erabat desideologizatzailea da. Programa guztiak "ondo pasatzeko" eta "bizitzaz gozatzeko" dira eta ez dago inolako eragin ideologikorik. Ideologia konkreturik gabeko gazteengan gero errazagoa da zenbait ideia zentralista sartzea, eta hori da komunikabideek egiten dutena. Estatuen alde dauden presio taldekoak izanik, balio zentralistak zabaltzen dituzte.

Orain arte aipatu dugun historia "ohiko historia" dela esan dezakegu, liburuetan dagoena eta eskoletan irakasten dena. Herritarren historia, aldiz, ezkutuan gelditzen da beti. Zer dela eta?

80ko harmakadan garrantzi handia eman zitzaion egiturazko historiari, hots, mugimendu demografikoei, ekonomikoei, sozialei... Orain egiturazko historiatik kanpo dagoen mugimenduei garrantzia ematen dien historia nagusitu da, alegia, mugimendu politikoen, ideologikoen eta eguneroko bizitza eta pentsakeraren historia. Ondorioz, egiturazko historia alde batera utzi da. Beste modu batera esanda, marxismoa modatik pasa da, eta oinarritzko egituraren azterketa den guztia -ekonomia, demografia...-, beste korronte historiografikoen mesedetan baztertzen ari da. Nik uste dut berriz

ere lehengora itzuliko garela, baina momentuz oztopo horrekin aurkitzen gara.

Beste arazo bat, zoritxarrez, herri bizitzaren historia ezagutzeko dokumentu eskasia da. Zeharkako modu batez jakin dezakegu nola bizi ziren, baina historia idazten zutenak goiko klasekoak ziren, eta beraien arazo eta interesak islatzen zituzten, ez herri soilarenak. Askotan, herriak egiten zuena jakiteko aldearantziko historia egin behar izaten dugu intuizioz jokatu, eta oso zaila da.

Halere, nik uste dut herriarengandik gertuago dagoen historia egiten hasi dela. Hots, hain unibertsalista eta orokorra ez den historia, herri bizitzatik gertuago dagoena.

Herritarren gertuko historia ezagutzeko ez al da garrantzitsua?

Nik uste dut baietz. Lurreko edo nazio bateko historia maitatzeko lehenengo gertuko historia maitatu behar da. Niri oso arraroak suertatzen zaizkit kosmopolitismoa eta unibertsalismoa. Kosmopolita dela esaten duenak ez du Txinako historia eta hemengo maitatzen, teoria hutsean gelditzen da. Besteen historia maitatzeko lehenengo norberarena maitatu behar da. Lehenengo norberaren herrian nola bizi ziren, nola koak ziren ezkontzak, hiletak eta abar ikertu behar da. Horren ondoren hasiko da bere herriaz interesatzen eta maitatzen, eta gero txinatarrek edo kubatarrek maitatzen.

Zergatik ez da hori guztia eskoletan irakasten?

Ez dakit zergatik. Niri oso interesgarriak iruditzen zaizkit, eta programa ofizialetan sartu beharko lirartekeela iruditzen zait. Euskal Herrian, adibidez, garrantzi handia eduki dute lagunarteko guneek, hots, auzolanek, hiletak, tabernetako ter-



tuliek, koadrilek... Beste lekuetan ez dira hemen adinako intentsitatez bizi izan lagunarteko harreman horiek. Baina apenas agertzen dira liburuetan. Jendearen pentsamenduan mantentzen diren espazioak dira, mito batzuen inguruan gordetzen direnak.

Mitoak aipatu dituzu. Balio handia al dute mito historikoek?

Bai, bai herri baten historian eta baita herri horren nortasunean ere. Herri batek bere nortasuna mantentzeko bi elementu behar ditu nire iritziz: hizkuntza eta mito historikoak. Nire ustez, herri batentzat mito historikoak pertsona batentzat oroimenak bezala dira. Pertsona batek oroimena galtzen badu, Alzheimer segurua izango du. Eta oroimenik gabeko herria ere etorkizunik gabeko herria da.

Gertatzen dena da gaur egun dena desmitologizatzeko joera dagoela. Gure mitoak desmitologizatzeaz hitz egiten da; Aitor, lauburuaren jatorria eta abar desmitologizatzeko esaten digute. Aitzitik, espainiarrek bereak mantendu egiten dituzte, estatu handien mitoak bere horretan utzi nahi dituzte. Zergatik? Badakitelako herri txiki batek bere mitoak galtzen baditu, herri handiago baten barruan txertatzen dela eta herri hori desagertu egiten dela.



Gipuzkoako Foru Aldundian egindako aurkezpen ofiziala.



Hurrengo uztailen berriro topaketak

Dagoeneko hiru hilabete pasa dira Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak burutu genituenetik. Arrakasta handia izan zuten eta parte-hartzaileen aldetik erantzun ezin hobea jaso genuen.

Guztira 900 pertsona bildu ginen uztailaren 4, 5 eta 6an Donostiako Irakasle Eskolan, Enpresa-Ikasketen Unibertsitate Eskolan, Informatika fakultatean eta Ekintza ikastolan; 745 hartzaile, 119 hizlari eta 25 antolatzaile.

Topaketa hauek euskal irakas-kuntzan gabiltzanonek topaleku izatea nahi genuen, eta egiaz partaideon presentzia eta lekukotasun fisiko hori ikusi ahal izan dira.

Orain arte isolatuta eta bere kabuz lanean zebilen irakasleak bere kideekin elkartzeko aukera izan zuen. Aipagarria da oso jendearen motibazioa eta ilusioa nolakoa izan zen. Oso gustura eta gogo handiz ikusi genituen hartzaileak, interes handiarekin. Askok aipatu zuten ho-

relako ikastaroen premia dagoela eta jarraipena izan behar dutela. Horrek, dudarik gabe, izugarrizko poza eman digu, eta gure lanean jarraitzeko indarra, animoa eta ilusioa.

Zenbait ikastarotako materialarekin monografikoak argitaratuko ditugu, eta beste hainbat ekarpen eta esperientzia hik hasi aldizkarian kaleratuko dira.

Oro har, balorazio positiboa egingen dugu, eta baita parte hartu dutenek ere. Horregatik, 2001. urteko uztailen II. hik hasi Udako Topaketak antolatuko ditugu.

Topaketek iraun zuten hiru egun haien kronika bat egin nahi izan dugu partaideen iritziak kontuan hartuz; 745 hartzaileetatik 439k bete zuten banatu genuen balorazio orria. Bertan izan zinetenoi egun haiek gogora ditzazuen balioko dizute, eta egon ez zinetenoi ideia bat egin dezazuen. Era berean, jasotako iritziek hurrengo topaketak hobeto antolatzeko balioko digute guri.

Sarrera ekitaldia

Uztailaren 3an Irakasle Eskolaren ingurua jendez bete zen. Ikastaroak hasi, sarrera ekitaldian txalapatariak, Porrotx eta Pirritx pailazoei, amona Josefinak, haurrek eta hik hasiko eta Topaketetako koordinatzaileek eman zuten ongi etorria.

Vigostki

Ikastaro teoriko hau Pedagogia Fakultateko Gelategian burutu zen. 200 inguru matrikulatu ziren, ikastaro jendetsuena izan zelarik. Nahiz eta aurkezpen batzuren maila eskasa izan, oro har ikastaroa teoriak janzteko beharrari erantzuteko ona izan zen. Dena den, parte-hartzaileek teoria jasotzeaz gain, hori praktikarekin uztartzeko beharra nabaritu zuten. Esperientzia konkretuak azaltzea eta eguneroko lan praktikora gehiago hurbiltzea faltan bota zuten. Hori bideratzeko mahai inguruak eta mintegiak antolatzeko proposamena luzatu zuten batzuk.

Ikastaro honetako material guztia bildu egingo dugu eta **monografiko bat argitaratuko dugu** horrekin.

Informatika Haur eta Lehen Hezkuntzan

Hasteko, informatikaren inguruko zenbait azalpen eman ziren. Gero lau tailer antolatu ziren informatikaren erabileraren alderdi metodologikoen azterketa egiteko eta erabiltzen diren programak era praktikoa ezagutzeko. Era berean, zortzi ikastetxetako irakasleek gaur egun gauzatzen ari diren esperientzien berri eman zuten, eta horren berri izatea oso interesgarritzat jo zuten. Baita gelan erabil daitezkeen baliabideak ezagutzea ere. Horrelako ikastaroa euskaraz jasotzea ere baloratu zuten. Era berean, esperientziak trukatzeko bideak irekitzea oso positiboa dela adierazi zuten.

Lehenengo urtea izanik eta 140 ordenagailu inguru erabili zirela kontuan harturik, zenbait akats tekniko egon ziren. Osterantzean, gauzak ondo atera ziren.

Internet, aplikazio pedagogikoak

Ikastaro honetako gaiak interesgarriak izan zirela aipatu zuten askok eta jarraipena emateko premia azaldu zuten. Hainbat proposamen bota zituzten: programekin praktika gehiago egitea, aldizkari elektronikoa egitea, web orriak egitea, metodologian sakontzea, Hik Hasi aldizkarian artikulua argitaratzea Teknologia Berrien aurreko "beldurra" kentzeko eta abar. Ikastaroa euskaraz egitea baloratu zuten.

Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza

Ikastaro honetako lehen egunean gai honen inguruko hitzaldiak eman zituzten hizlariak. Hurrengo bi egunetan hiru tailerretan banatu zen jendea; Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako tailerretan. Horietan sexualitatea lantzeko zenbait baliabide didakti-

ko eta metodologiko ezagutzeaz gain, bakoitzaren esperientzia, zantzak, bizipenak eta beste hainbat gauza azalarazteko aukera egon zen.

Orokorrean hartzaileak oso gustura sentitu ziren tailerretan, gertutasunez eta erosotasunez lan egiteko aukera egon baitzen.

Hizlarien gaitasuna eta jarrera oso positiboki baloratu zituzten. Partaideen bizipenetatik abiatzea oso ongi iruditu zitzaie, eta are gehiago bakoitzaren eta guztien aportazioak onartzea, baloratzea eta positibitatea. Bildutako partaidetza oso handia izan zela aipatu zuten.

Hizlarien azalpenak biltzea eta eskuratzea komenigarria ikusten zuten. Lan hori aurreikusia genuen eta **monografiko batean bilduta argitaratuko ditugu**.

Plastika

Ikastaro hau bi taldetan banatu zen: Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako. Guztiek aipatu zuten egun gehiagoren beharra teoriarik ikusitakoa praktikan jartzeko. Arlo honetako ikastaroei jarraipena behar dutela aipatzen zen, prestakuntzan izugarriko zuloak baitaude.

Musika Hezkuntzarako programazioa

Musika programazio orokorra antolatzeko bitartekoak eskaintzea zen ikastaro honen helburua. Partaideak txirula eta gitarra joz jardun ziren hiru egunetan eta ikastaro praktikoa izan zen. Ongi antolatua eta prestatua, dinamikoa eta ulerkorrian zela adierazi zuten eta oso gustura atera ziren. Gehienek denbora falta azpimarratu zuten, eta ondorioz, hainbat gauza azkarregi ikusi zituztela.

Musika Hezkuntza Berezian

Ikastaro honetan Aschero musika sistema berria ezagutarazi zen. Down sindromea, burmuin elbarritasuna, atzerapen mentala eta autismoa daukaten pertsonekin erabil-



Donostiako Irakasle Eskolan Topaketan dokumentazioaren banaketa eta sarrera ekitaldia burutzen ari zireneko irudi batzuk.



Topaketetan hartutako irudietan hainbat
hizlari eta parte-hartzaile agertzen da.



tzen den metodologia da. Gai interesgarria eta erakargarria izan zen hartzailleen esanetan. Metodologia bera ezagutzeaz gain, azken egunean Down sindromea duten neska-mutil bi etorri ziren. Aschero sistema erabiliz pianoa nola jotzen duten ikusi ahal izan zen bertatik bertara. Teoria eta praktika hori uztartzea oso interesgarritzat jo zuten parte-hartzaileek.

Hik hasik **Joxe Ramon Vitoria emaileak prestatutako liburuxka argitaratuko du.**

Bigarren Hezkuntzan euskararen erabilera nola sustatu

Ikastaro honetan irakasleek ez ezik, udal euskara teknikari ugariak parte hartu zuten. Nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko dauden programak, proiektuak eta esperientziak aurkeztu ziren, bai ikastetxeetakoak, bai aisialdi taldeetakoak eta bai herri mailakoak. Ikastaroaren kalitatea eta dibertsitatea baloratu ziren. Hizlari gehien eduki zituen ikastaroa izan zen eta hartzailleen esanetan maila ona erakutsi zuten. Ikuspuntu desberdinak ezagutzeko aukera egon zen. Nerabeek ere parte hartu zuten azalpen batzuetan beraien esperientziaren berri emateko, eta hori oso interesgarria izan zela adierazi zuten hartzailleek. Halere, esperientzia gehienak Gipuzkoakoak izan ziren, eta beste herrialdeetakoak ezagutzea ere interesgarritzat jo zuten, horrela ingurune gehiagotako erreferentziak ezagutzeko.

Ingelesa Haur Hezkuntzan

Ikastaro honetan Haur Hezkuntzako ingeles proiektu bi aurkeztu ziren: Ikastolen Elkarteko eleanitz proiektua eta EAEko eskola publikoetako ingeles goiztiarraren proiektua. Positiboki baloratu zen planteamendu bien azalpena, bakoitzaren ezaugarriak eta bien arteko desberdintasunak ikusteko, eta baita banatutako materiala ere. Aur-

kezleen jarrera eta sortutako giroa onak izan zirela aipatu zen.

Atxikimendua

Oro har ikastaroa interesgarria, baliagarria eta positiboa izan zen hartzailleen iritziz. Ikastaroaren egitura ere oso egokia iruditu zitzaion: lehenengo egunean gaiaren teorizazioaren inguruko hitzaldia aurkeztu zen; bigarren egunean ikuspegi ezberdinak planteatu ziren; eta hirugarren egunean hainbat eskoletako esperientzien berri eman zen.

Hitzaldien maila oso ona izan zela adierazi zuten, eta banatu zen materiala ere bai. Esperientziei dago kienez, oso interesgarriak izan zirela aipatu zuten eta trukaketa hori indartzeak merezi duela.

Ikastaro honetako materiala ere, **monografiko batean bilduko dugu.**

Hizkuntzaren aldetik, askok aipatu zuten hizlariak erabiltzen duen hizkuntza menperatzea garrantzitsua dela. Ulermenaren aldetik, euskaraz kili-kolo aritzea baino nahiago dutela gaztelaniaz entzutea azaldu zuten.

Euskaraz jolasten

Ikastaro hau bi taldetan egin zen, eta talde bien balorazioa oso positiboa izan da. Erabat praktikoa izan

zen, goiza jolasten eta abesten pasatzen zutelarik. Kanta eta jolas asko ikasteko aukera izan zutela adierazi zuten, eta oso erabilgarria eta baliagarria izango zaiela.

Emaileen egokitasuna, gertuko jarrerara, motibatze indarra eta emandako konfidantza aipatu zituzten.

Ikastaroa bideoan grabatu eta kopiak erosteko aukera izatea gus-tatuko litzaiokeela aipatu zuen batek. Alde horretatik, aurreratu dezakegu jolasak eta abestiak biltzen dituen "Zatoz jolastera!" bideoa abenduan plazaratuko dugula (horri buruzko informazio osatuagoa 32. orrialdean daukazu).

Hik Hasi I. Udako

Topaketek jaso duten

erantzun zabala ikusita

eta parte hartzaile

askok jarraipena eskatu

duenez, datorren uztai-

lerako II. Topaketak

antolatzeke konpromi-

soa hartu dugu.



Tenis klubean egin zen Topaketei amaiera emateko bazkari-festa.

Kristau Eskola Euskal Hezkuntza Sistematan

Felix Ezama Esnaola

EIEF-FEReko Idazkari Eraginkorra



Euskal Kristau Eskola Euskal Herriari hezkuntza arloan ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzeko asmoz sortua da. Asmo tinko horrek haren nortasunaren bilaketa eta finkapena ziurtatzen du.

Zerbitzatzeko borondate hori mamitzeko, ordea, herriaren eta hura osatzen duten pertsonen egoera soziokulturala ezagutu eta onartu beharra daukagu, horri buruz edozein iritzi edo ikuspegi ideologiko aintzat hartu aurretik. Hain zuzen ere, errealitatea den bezala onartzeko jarrera begirunetsu hori aurretiazko baldintza da ezinbestean, horretan edo horri buruz nola jokatu behar dugun erabakitzeke. Eta baldintza etikoa ere bada. Izan ere, **gizabanakoak eta gizataldeak eskubide batzuen jabe dira, eta hezkuntzan eta hezkuntza sistematan horiek errespetatu egin behar dira.**

Gizakientzat eta "herriarentzat" mesedegarria den zerbait egin eta gizartean zabaldu nahi bada, eskubide horiei zor zaien begirunez jokatu beharra dago. Bestela jokatzea ez litzateke herria "zerbitzatzea", hura indarkeriaz eraikitzea baizik.

2. Euskal Herria **aniztasun handiko errealitate soziokulturala da eta den bezalaxe onartu behar da.** Aniztasun horrek alderdi asko hartzen ditu bere baitan: ideiak eta usteak, gizakiari buruz dauden ikus-

molde ezberdinen inguruko balorazio etikoak, politika eta gizarte gaietan errealitatea ulertzeko era ezberdinak eta horretan eragina izateko modua.

Aniztasun handiko errealitate horrek aniztasun handiko hezkuntza sistema eskatzen du, guztion ondare diren giza eskubideetan oinarrituriko hezkuntza proiektu guztiak onartuko dituen sistema bat, hain zuzen.

Alde horretatik, inoiz ez dira parekotzat jo behar euskal hezkuntza sistemaren "batasuna" eta hura osatzen duten erakunde, sare, sektore edo ikastetxeen "homogeneotasuna" edo "uniformetasuna". **Kultur aniztasuna duen gizarte baten askatasuna ziurtatzeko, ezinbestekoa da askatasunetik sortzen den aniztasun horren alderdi guztiak babestea.**

3. Euskal Kristau Eskola, hezkuntza sarearen osagai moduan edo ikastetxe multzo gisa harturik, **askatasunaren adierazpen eta bermetzat** hartu behar litzateke, bai pentsamenduaren arloan, bai bizitza eta bere zentzua ulertzeari dagozkion aukeretan eta baita hura behar bezala mamitzeko bide ego-

kietan ere. Erljio aukeraren beraren aurretik dagoen zerbait dugu, eta norberak bere kabuz erabakitzeke duen askatasuna islatzen du.

Askatasun hori eskatzen duenak **ezin du onartu** Herri Administrazioak edo gizarte talde jakin baten ustez herri edo nazio bati mesede egiten diotelakoan, **gizabanakoaren bizitza antolatzeke eskubidea beretzat hartzea**. Gizabanakoak mundu honetara etortzean duen ahulezia edo babes beharra kontuan izanik, bizitza sorrarazten duen pertsonak haren ardura hartu behar du. Bizitza fisikoki sortu duenak hura espiritualki sortzeke eskubidea izan behar du "eskolarren" bitartez, eta inork ezin du ez dagokion "gurasotasuna" bere gain hartu, ez zuzenean eta ez zeharka.

4. "Eskolari" buruzko "giza ikuspegi" horrekin bakarrik lor daiteke duintasun osoko eskola bat, gizakia eta bere askatasuna funtsezko eta oinarritzko erreferentzia gisa harturik betiere. Eskolaren eginkizuna ez da, soil-soilik, jakintza edo lanerako gaitasun batzuk erakustea, gizarteak behar bezala funtzionatu eta aurrera egin dezan. Izan ere, hasiera batean eskolak ez du kontuan hartzen gizabanakoak zer "egin" behar duen, zer **"izan" behar duen baizik**. Planteamendu hori alderantziz eginez gero, gizarteak gizabanakoaren gaintik jartzeko ikuspegia nagusituko litzaiteke, eta ikuspegi horixe da, hain zuzen, pentsaera totalitario guztien oinarria. Horregatik, **gizabanakoarentzat "neutroa" izango den eskola eratzea ezinezkoa da**. Horrek, gainera, eskola instituzioaren gizalegezko balioen galera ekarriko luke, berez izan behar duen hezkuntza eginkizuna ere galarriz.

Une honetan premia handia da-

go Euskal Herrian hezkuntza sistema propioa antolatzeke eta "euskal eskolak" nolakoa izan behar duen zehazteke; alde horretatik, egiten ari garen baieztapenek gaurkotasan historiko ukaezina dute.

5. Kristau Eskolaren ustez, **Eusko Herriko gizarteari eta herritarrei egiten zaien hezkuntza eskaintza guztiz onuragarria da une historiko honetan**, bai landu beharreko etorkizunari begira eta baita bake eta normalizazio bidean aurrera egiteke ere. Kristau Eskolak nahi luke bere izaeratik eta izan nahi duenagatik aintzat hartua izatea, bere nortasunari helduz egiten duen hezkuntza eskaintzagatik baloratua izatea, euskal eskola gi-

sa jardunez, dagoeneko baden eta etorkizunean eskubide osoz izan nahi lukeen gizarte horren zerbitzuan.

Euskal Herriarekiko leial jokatu nahi du, berari zerbitzu bat eskaintzeke jarrera tinkoz, bertan erroterik dagoelako eta harekiko konpromiso sendoa hartu duelako. Eta "eskola" denaldetik, bere ustezikas-tetxeari ezinbestean loturik dagoen hezkuntza helburuaren alderdi aberasgarri guztiak eskaini nahi ditu, eskola modernoak berez dituen eskakizun tekniko eta pedagogikoen arabera lan eginez. "Kristau" eskola denez, argi adierazi nahi du eskaintzen duen giza proiektua Ebanjelioaren balioetan



oinarrituta dagoela. Halaber, "euskal" eskola da, bere burua "euskaldun" izendatzen duen herriarekin bat eginik, hura zintzo zerbitzatze-ko helburuz.

6. Kristau Eskolak **gizakiaren duintasun osoa** aldeztu eta bultzatzen du. Horregatik, haren hezkuntza proiektua askatasun osoz onartzen duten pertsonetako bakoitzari heziketa integrala eskaintzeko bokazioa berresten du. Bestalde, ondo asko daki duintasun hori, lehentasunez, gaurko gizarteko behartsu eta baztertuei aitortu behar zaiela. Ildo horretatik, gizarteari benetako zerbitzua eskaintzen dioten bestelako hezkuntza aukeretan bezala, doakotasuna bermatzeko beharrezko baliabide guztiak (baliabide publikoak barne) erabiltzeko eskubidea errebindikatzeko du.

Euskal Kristau Eskolaren funtsezko oinarria **Hezkuntza Komunitatea** da, eta alde horretatik, hura osatzen duten pertsona guztien askatasuna eta partaidetza bultzatzen du.

Bestalde, oharturik dago pertsonen hezkuntza ezin dela bakarkako ikuspegi batez bideratu; aitzitik, **gizarteari zabalik** egon behar du. Gizartearekiko jarrera arduratsua, eta horrekin batera, hura bereganatzeko beharrezkoa den gaitasuna, lan ohitura eta diziplina, gizarte hezkuntzaren helburuetako batzuk dira, gizabanakoaren benetako heziketa integrala lortzeko funtsezko alderdiak izanik.

7. Kristau Eskolak berriaz berresten du bere izaeraren eta bere hezkuntza jardueraren ezaugarri nagusi den **kristau jatorria**. Bere burua kristautzat hartzen badu, ez da haren titularrak kristaua delako, baizik eta bere nortasunak eta eskaintzen duen zerbitzuak hala eskatzen diotelako. Zerbitzu hori gizabanakoari begira antolatua da, hura gizabanako eta gizarteko kide bezala harturik, Jesukristoren Ebanjelioan oinarri hartzen duela. Dena dela, konfesionaltasun horrek bidea zabalik uzten die beste batzuei ere, betiere erakunde ho-

ren nortasunari buruz begirunezko jarrera hartzen badute, eskolak eskaintzen dien hezkuntza zerbitzuaz balia daitezten.

Kristau Eskolak uste du **gizakia- rentzat oso aberasgarria** dela Jainkoarengana hurbiltzea, Jesukristoren jarraibidea eredutzat hartuz, eta arlo hori "eskolan" landu daiteke. **Fededun izateko eskubidea onartzen duen gizarte batek onartu beharra dauka, halaber, bizitza sozial eta zibiko-politikoari buruz kristau ikuspegia duten eskolak sortzeko eskubidea.**

Horregatik, "kristau" eskolak, bere hezkuntza komunitatearen bidez, bizitzari buruzko kristau ikuspegiarekin bat datozen balioak erakutsi eta zabaldu nahi ditu, hala nola askatasuna, justizia eta elkartasuna.

8. **Bakea lortzearen alde dago**, eta horri begira, gizarte bizitzaren arlo guztietan elkarriketa, elkar ulertzea eta partaidetza aktiboa bultzatu nahi ditu gatazkak konpontzeko.

Bere iritziz, kultura eta hezkuntza arloan **euskal hiritar guztien funtsezko eskubideak behar bezala onartzea** da bide bakarra normaltasun zibiko-sozialeko giroa sortzeko. Euskal Herriaren sustrai historiko-kulturala eta, batez ere, bertako hizkuntza aztertu eta lantzea Euskal Kristau Eskolaren hezkuntza eginkizunaren atal guttiz garrantzitsuak dira.

Euskal Kristau Eskola ongi jabetua dago, gure herriak **Europango eta esku-hartze handiagoo** izateko erronkari aurre egin behar diola. Eta erronka horri bi eratan erantzungo dio: bere nortasuna finkatuz eta komunikazio eta informatikako teknika berriek dakarkiguten etorkizunari jarriera zabalez begiratu.



Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik



Berriak urria



Hernaniko Zelai-gain baserrian burutu da errodajea, nahiz eta kasu batzuetan beste lekutara ere mugitu.

Zatoz jolastera!

bideoa kaleratzear dugu

Orain arte plazaratu ditugun "Haur-jolasen abestiak" eta "Haur-jolasen abestiak II" zintak eta CDak euskal jolas tradizionalarak eta berriak bildu dituzte. Orain errodatu dugun bideoa lan horien osagarri izango da; jolas horietako asko biltzen baititu. Istorio baten hariari jarraiki, jolasez eta abestiz osatutako film bat da. Durangoko Azokarako kalean izango da.

Duela bost urte abiatu ginen jolas eta abestien bidaia honetan helburu nagusi batekin: haurrek euskaraz jolastea eta abestea. Izan ere, euskaraz ikasi arren, erdaraz jolasten zutela ikusten genuen.

Orain, ordea, beste urrats bat eman nahi izan dugu: euskal jolasak eta abestiak biltzen dituen bideo bat grabatu dugu. Ordubeteko iraupena duen film bat da, baina bideo formatuan eginga.

Bideoaren ildo nagusia jolasak dira. Istorio batek lotzen ditu jolasak, eta istorio horretako partaide nagusiak haurrak, Porrotx eta Pirritx pailazoak, amona Josefina eta Serapio mal-

tzurra dira. Parte hartu duten 16 haurrak Donostiako Zurriola ikastolako antzerki tailerrean dabiltzanak izan dira. Horiez gain, hainbat pertsonaia ospetsuk ere parte hartu dute: harrien jolasean Mieltxo Saralegik, tirakako jolasean Sakana soka tira taldeak, arrautzen jolasean Martin Berasategik, hitzen jolasean Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak, magia uneetan Txan magoak, pilotekin jolasterakoan Olaizola anaiek, alkateak, Josune Bereziartu eskalatzailleak, Tapia eta Leturiak, Erramun Martikorenak eta Julen Guerrerok. Guztiei izan duten prestutasuna eta jarrera irekia eskertu beharrean gaude.



Goiko argazkian, Tapia eta Leturia Zelai-gain baserriko nagusiek. Hauen aldetik uneoro jaso dugun laguntza benetan eskertu nahi dugu.

Bideoaren mamia

Bideo honetako abestiak hik hasiren "Haur-jolasen abestiak" zinta eta CDetatik hartu ditugu. Ondoren, abesti horiei lotura eman dien gidoia Jose Mari Agirretzek (Porrotx), Aiora Zulaikak (Pirritx), Alex Tetuanek, Mertxe Rodriguezek eta Harritxu Troitiñok egin dute. Beraiek izan dira haurrekin batera parte hartu duten pertsonaien papera egin dutenak. Irudiak jasotzea Enrique Urdaño eta ITPko bere ekipoaren lana izan da eta guztiak Manolo Gilen zuzendaritzapean aritu dira lanean.

Guztionez izan da erronka lan hau egitea. ITPkoek bideo-klip ugari egin dituzte talde ezagunekin (Negu Gorriak, Barricada, Sorotan Bele, Celtas Cortos, Tahúres Zurdos, Duncan Du, La Oreja de Van Gogh, Rosana, Amparo Sandino, Compay Segundo...) eta baita dokumentalak ere munduan zehar (Paraguay, Andeak, Madagascara, Los Angeles, Bolivia, Kuba, India...). Baina ordubeteko film bat egiten duten lehenengo aldia da. Pailazoek ere beraien emanaldietako bideoak egin izan dituzte, baina bideo hau ez da emanaldi batean oinarritu, film baten egitura izan baitu. hik hasirentzat ere apustu berri bat izan da, jakinik orain arte ez dela horrelako bideorik egin.

Hamar eguneko erroldaje intentsiboaren ondoren, denok gustura gelditu gara, eta produktua eskuratu zain gaude. Durangoko Azokarako kalean izango da "Zatoz jolastera!" bideoa.





Gela bikoizketa - ren alde

Berriozarko Mendialdea eskola publikoan, D ereduari, 4 urteko gelan 26 haur daude.

Hala ere, HSAOL edo LOGSE delako legearen arabera, 3-6 urte bitarteko zikloan gela bakoitzean gehienez 25 haur egon behar dela agindu arren, Hezkuntza Departamentuak ez du onartu gela horren bikoizketa Mendialdea eskolako klustroak, eskola kontseiluak, SORTZENek eta gurasook hala eskatu bagenuen ere.

Erraz uler daiteke 26ko edo 27ko haur kopurua handiegia dela, haur gehiegi dagoen gelan irakasleak ezin dielako guztiei behar bezalako jarraipena egin.

Kontuan har dezagun murgiltze eruedetan haur kopurua gela edo ratioa txikiagoa beharko litzatekeela heziketa hobea lortze aldera.

Pasa den ikasturtean gela horren bikoizketa ez ofiziala egin da eskolako barne berrantolamendu bati esker, eta haurrak bi taldetan banaturik egon dira, talde bakoitza bere irakaslearekin.

Iazko azaroan Berriozarko udalbatzan aho batez onartu zen gela horren bikoizketa, hala nola Jesús Laguna Hezkuntza kontseilariarekin bilera bat eskatzea. Oraindik Hezkuntza Departamentuak ez du erantzunik eman.

Orain gurasook eta SORTZEN-
IKASBATUAZek berriz berresten dugu gela horren bikoizketaren beharrezkoa, arazoak bere horretan baitira eta

administrazioak ez baitu bikoizketa egiteko asmorik agertu.

Gurasook berehalako soluzioa nahi dugu, ikasturtea hasi baino lehen.

Guraso taldea
Josu Jiménez Maia eta
Juan Francisco Muñoz Aguilar

joseba jaka III. literatur bekak

Euskal kultura garatzeko eta idazleen lana bultzatzeko helburuz, literatur sorkuntzarako III. dirulaguntza-deialdia egiten du Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak. Dirua beketan banatuko du bi urtez behin, eta arlo hauetarako izango dira: olerkia, eleberria, saiakera eta haur eta gazte literatura.

Informazio gehiagorako:
Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa
Tolosa hiribidea 103, 1. D
20009 Donostia

caf-elhuyar VII. sariak

Sari honetan euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikulu originalak eta sekula argitaratu gabeak aurkeztu ahal izango dira. Ohiko hiru sari (100.000 pta., 50.000 pta. eta 25.000 pta.) eta sari berezia (25.000 pta.) banatuko dira. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaitzen da.

Informazio gehiagorako:
Elhuyar Kultur Elkarte
Asteasuain poligonoa 14
20170 Usurbil

Paulo Freireri buruzko kongresua ospatu da Portugalen

Paulo Freire pedagogoari buruzko nazioarteko kongresua ospatu berri da Portugalen. Irailaren 20, 21, 22 eta 23an burutu zen Evoran, bertako unibertsitateak antolaturik.

Freireren pentsamendua, proiektuen eta proposamenen inguruko hausnarketa bideratzea izan du helburu kongresuak. Eta hori guztia, gaur egungo hezkuntzako hainbat arlotan aplikatzeko bideak eta aukerak proposatzea zein lantzea.

Guztira 422 partaide bildu dira. Hitzaldi orokorrak entzuteko parada izan dute eguneko lehen orduetan, eta hainbat mahai inguru eta aldi bereko saiotan parte hartzeko aukera ere bai. Hizlari ugari hartu dute parte, eta besteak beste han izan dira Caengo Unibertsitateko Gaston Mialaret, Pariseko Unibertsitateko Basarab Nicolescu, Frantziako Irakasleen Unibertsitateko Louis Marmoz, EEBBtako Wisconsin Unibertsitateko Michael Apple, Brasilgo Paulo Freire Institutuko Moacir Gadotti eta Renneseko Unibertsitateko Paul Taylor. •



Irailaren 23an Bilbon egin zen manifestaldia.

Gorren Munduko Eguna ospatu zen irailaren 23an

Euskal Herriko gorrek eta haien senide eta adiskideek Gorren Munduko Eguna aprobetxatu zuten beraien aldarrikapenak kaleratzeko. Aurtengo ekintzen lema "Entzuiguzu" izan da. Errebindikazio nagusiak lau izan dira: keinu-hizkuntza ofizialki onartzea, komunikazio mugak gaintzea, diagnostiko lasterra eta estimulazio goiztiarra sustatzea eta gorren hezkuntza premia bereziak kontuan hartzea.

Keinu-hizkuntzaren ofizialtasunaren onospena tinko eskatu zuten eta horren aldeko sinadura bilketa egin zuten. Gor guztiek duten komunikazio tresna da keinu-hizkuntza eta beraientzat garrantzi handia du. Ofizialki ez da hizkuntza onartua, eta toki askotan ez da aintzakotzat hartzen. Horrek arazo anitz sortzen dizkie gorrei egunerko bizitzan. Hori dela eta, o-

fialtasuna lortu eta egoera hori aldatzea nahi dute. Informazio idatzia zein ahozkoa eskuratzeko ere arazoak izaten dituzte beraien beharrak ez direlako kontuan hartzen. Hori aldatzeko aldarrikapena ere egin zuten. Era berean, hezkuntza sistemak gorren premia bereziak egokitzea eskatu zuten, horrek lan merkatuak bidea erraztuko lietekeelarik.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ekitaldiak Bilbon elkartu ziren, eta Nafarroako gorak Iruñean. Zerbait erakusketa jarri zituzten, besteak beste, gorren ohiko bizitzarekin eta premiekin lotura duten baliabide eta zerbitzuen berri ematen zuena. Keinu-hizkuntzako ikastaro txiki bat ere eskaini zuten. Beraien minusbaliotasunari buruzko informazioa ematen saiatu ziren irailaren 23an egindako ekintza horien bitartez.


Argitalpenak



Artea gazteentzat eta guztiontzat

Gaiak argitaldaria, Oinarrizko liburutegia
185 orr.

Labarretako artearekin hasita, Mesopotamia, Grezia eta Erroman sortzen diren esperientziak aztertzen dira, erromaniko, gotiko eta islamiar artearekin buktzeko. Gero, Errenazimendua, Barrokoa eta XIX. eta XX. mendeko estiloak aztertzen dira. •



Kanpai hotsak isiltzean

Antton Kazabon
Desclée de Brouwer,
"Ipotxak eta erraldoiak" bilduma
128 orr.

DBHko 2. zikloko ikasleei zuzendutako liburu berri honetan haur eta gazteen kontu, pasadizo eta abenturak biltzen dira. Bizimodu ezberdinen erretratu bat egin nahi izan du idazleak, eta aldi beran giro bat birsortzeko ahalegina ere bai.. •



Bide magikoa

Pello Añorga
Aizkorri
"Mendi sorgindua" bilduma
36 orr.

Konstantino da liburu honetako pertsonaia nagusia. Hondartzara joan da *Bide magikoa* liburua irakurtzeko asmotan. Baina alabak ama galdu duela esan ostean, ama bilatzeari ekiten diote bide magikoan barrena. Bide horretako abentura dira irakurgai. •



Elhuyar hiztegi berriua 2. edizioa Elhuyar

Elhuyar hiztegiaren bigarren edizio honetan hainbat aldaketa eta zuzenketa jasotzen dira, betiere Euskaltzaindiaren arauak jarraiki. Eguneratu, berri eta osatu den hiztegi hau hiru formatotan eskura daiteke: liburu formatoan, CD-ROMean eta hiztegi elektronikoa. Sarean ere eskainiko da, bai intranetan eta bai interneten. •



Literatura unibertsala (XVIII-XIX-XX. mendeak) Iñaki Aldekoa eta Mari Jose Olaziregi EIZIE eta Erein

Batxilergoko ikasleentzat bideratutako liburu honetan euskal itzul-tzaileek azken hamarkadetan literatura unibertsalari buruz egindako lanen bilduma dago. Horrez gain, Europa eta Ameriketako korrante eta autore nagusien erreferentziak ere biltzen dira. •



Lanbide Heziketako materialak Interneten Elhuyar

Elhuyarrek Lanbide Heziketako hainbat material jarri ditu Interneten: Elikagintza prozesuak, Antolakuntza eta ekoizpen prozesuaren kontrola, Fiskalitatea eta Teknologia mekanikoa. Lanbide Heziketan dagoen hutsunea betetzeko asmoz burutu du ekimen hau. Horrez gain, maila honetakozenbait liburu ere baditu. •

Howard Gardner

Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (I)

Howard Gardnerren Adimen Anitzen teoria ez da giza ezagutzaren planteamendu bat gehiago soilik, baizik eta zientzia psikologikoa, eta batez ere hezkuntza iraultzen ari den proposamena. Gure burmuin potentziala anitza eta moldagarria da, denok adimen bat baino gehiago garatzen ditugu. Ondorioz, ikasleak beraien perfil intelektualari erantzuten dioten gaitasunetan prestatzeko erantzukizuna dauka eskolak. Zentzu horretan, Adimen Anitzen teoria oso tresna baliagarria izan daiteke, hau da, eredu bat kalitatezko hezkuntza sistema sortzeko saiakeran. Beste modu batera esanda, Gardnerren lanak ondo egituraturako marko teoriko eta praktikoa eskaintzen du ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan sakoneko aldaketak egiteko.

Biografia

Howard Gardner psikologiako zientzialari garaikiderik interesgarrienetakoa da, bereziki adimena-rekin zerikusia duten gaitetan. 1943. urtean jaio zen gizon honek Harvard Unibertsitatean Filosofia, Soziologia, Psikologia eta Medikuntza ikasi zituen. Gaur egun Hezkuntzako irakaslea da Harvard Unibertsitatean, Neurologiakoa Bostonen eta Harvard Unibertsitateko hezkuntza proiektu esanguratsuenetarikoa bateko zuzendari-ondokoa da, Project Zero izeneko proiektukoa, haiz zuzen ere.

Bere ikerketa zientifikoak honako eremutan zentratzen dira nagusiki: giza adimenaren jatorriari buruzko azalpen berriak egitea; Adimen Anitzen teoria hezkuntza sisteman ezartzeko estrategiak bilatzea; gaitasun kognitibo desberdinen garapenera zuzendutako programak sortzea; kasu bereziak ikertzea, hots, indibiduo sortzaileak, liderrak eta abar;

Maria Luisa Sanz de Acedo

NUP. Psikologia eta Pedagogia departamentua



burmuineko kalteak eta hizkuntz aldaerak ikertzea; eta lan munduan adimen ezberdinek duten garrantzia aztertzea.

Psikologo honen argitalpenek bultzada handia eman diote ezagutza zientifikoaren aurrerapenari. 500 artikulu baino gehiago idatzi ditu kalitate handiko aldizkarietan eta izen handiko argitaletxeetan. Momentuz 19 lanen egilea da, besteak beste:

a) *Frames of Mind* (1983), adimenari buruz pentsatzeko era aldatu

zuen komunitate zientifikoari bere Adimen Anitzen teoria lehenengo aldiz azalduz;

b) *Creating minds* (1993a), zazpi pertsona berezi aztertzen ditu –Freud, Einstein, Picasso, Stravinsky, T. S. Eliot, Grahman eta Gandhi– horietako bakoitza adimen baten eredu delarik, eta sormenari buruzko ikuspuntu berria aurkezten du;

c) *Multiple intelligences: Theory in practice* (1993b), bere lan osoaren sintesia da, argitaratutako materialak zein lan orijinalak biltzen ditu, eta hezkuntzan egindako bere teoriaren aplikazio garrantzitsuenak laburtzen ditu, hasi lehen mailetatik eta unibertsitatetara;

d) *Leading minds* (1995), lider politiko handien, enpresarien eta militarren burmuinaz hitz egiten du, eta denei eraginkortasunez jokarazten dieten ezaugarri psikologiko komunak identifikatzen ditu;

e) *Intelligence reframed: Multiple intelligences for the 21st century* (1999), adimen kopurua gehitzen du.

Adimen anitzen teoria

Gardnerrek (1983, 1987a, 1987b, 1993b, 1995b, 1999), psikologo kognitibo askok bezala, adimenbakarraren edo "g" faktorearen eta proba psikometrikoen ikusmoldea kritikatu du alderdi linguistikoak, logikoak eta espazialak soilik neurtzen dituztelako eta gizakiarantz garrantzitsuak diren beste batzuk ahaztu egiten dituztelako, alderdi emozionalak eta sozialak kasu. *Frames of Mind* (1983) liburuan adimenaren definizio bat proposatu du. Kontzeptua pluralizatu egiten du eta gizakiaren gaitasun bezala hartzen du. Gaitasun horrek arazoak konpontzeko eta gizarateak onar ditzakeen produktuak sortzeko balio dio gizakiari. Modu horretara, adimena gizakia mugitzen den ingurune kulturalan eta sozialean sortu eta garatzen da, nahiz eta elementu biologikoak ere izan. Komunitate adituak erabakitzen du, eta ez proba edo test estandarizatu batek, gizabanako bat adimentsua den ala ez.

Thurstonek (1983) proposatu zuen lehendabiziko alternatiba Spearmanek (1904) aurkeztutako adimen orokorraren kontzeptuaren aurrean. Aitzitik, Gardner hartzen da adimenaren dimentsio anitzaren teorikotzat. Thurstonek analisi faktorialaren ondorioetatik "lehen mailako zazpi faktoreak" teoria ateratu zuen. Alabaina, Gardnerrek osatu egin zuen ondoko iturrietatik sortzen den informazioa gehituz:

a) burmuin gaixotasun baten ondorioz galdutako gaitasun kognitibo espezifikoaren eta antzeko beste gaitasunen iraunkortasunaren arteko kontrastea;

b) ezohiko gaitasun bat oso garatua baina aldi berean adimen maila orokorra baxua duten pertsonen presentzia;

c) adimen bakoitzaren garapenean sekuentzia desberdinen behaketa;

d) adimen bakoitzaren burmuin ariketen prestutasuna;

e) hainbat trebetasun neurtzen dituzten proben emaitzen arteko korrelazioa eza;

f) gaitasun bakoitzean sinbolo sistema ezberdinen erabilpena;

g) hobekuntza kognitiboa lortzeko bideratutako interbentzioen emaitza positiboa;

h) eta azkenik, kultura ezberdinetan adimena modu ezberdinean azaltzen dela erakusten duten azterketa transkulturalak.

Kriterio horiek ezohiko populazioarekin zein normalekin errespetatu ditu. Gizabanako prodigioen, jakintsu tontoen, haur autisten eta ikasteko



arazoak dituzten

haurren profil kognitiboek argi erakusten dute giza ezagutza anitza dela. Haur normalekin egindako azterketek alternatiba hau defendatzeko eta eusteko datu esanguratsuak eskaintzen dituzte. Era berean, Gardner oinarritzen den iturriek argi erakusten dute adimena ez dela gizakia arazo logiko-matematikoak konpontzeko prestatzen duen pentsamendu abstraktuko gaitasun multzo bat soilik. Horrez gain, dimentsio anitz ditu; kognitiboak, emozionalak, sozialak eta sortzaileak. Beraz, gizabanakoek ezagutza modu anitz garatu dituzte beren historian zehar ingurumene-

ko eskaera espezifikoari erantzun ahalizateko.

Aipatutako iturrietan oinarritutako azterketetan erreparatu, Gardnerrek (1983, 1993b) zazpi adimen proposatu zituen, balio eta garrantzi berdinekoak, eta independente samarrak: linguistikoa (L), logiko-matematikoa (LM), espaziala (E), kinestesikoa (K), musikala (M), interpersonala (Ite) eta intrapersonala (Itr). Orain dela gutxi beste bat gehitu du: naturalista edo landare-tza, fauna eta natur munduaren ezagutza sakona (Gardner, 1998). Lehen hirurak dira ohiko probetan gehien neurtzen direnak. Aitzitik, gainontzeko adimenak ez dituzte neurtzen. Horrek arazoak sortu ditu adimen bezala onartzerakoan.

Laburtuz, Adimen Anitzen teoria ulertzeko, garrantzitsua da oinarritzen den printzipioak onartzea. Esaterako: adimen bakoitza moldagarria dela, eta beraz, irakats daitekeela; gizakia adimen guztiekin jaiotzen dela eta familia, eskola eta gizarate inguruneak bideratuko dutela adimen horien egituraketa berezia gizaki bakoitzarengan; batzuk gehiago garatuko direla, beste batzuk gutxiago, eta beste batzuk batere ez, eta hezitzaileek ikasleen adimen potentziala hobetu dezaketela. Printzipio hauek Gardnerren teoriak hezkuntzan egindako aplikazio interesgarriak bermatzen dituzte.

Adimenaren kontzeptu tradizionalak gairiditzen

Gardnerren jarrera (1983) benetako desafioa da, adimenaren perspektiba psikometrikoen eta garapenean inguruko erreakzioa. Perspektiba psikometrikoari dagokionez, bere ikusmolde bateratua, orokorra eta egonkorra jartzen du zailtzen, eta ez du onartzen jarrera kognitiboen unibertsoaren ordezkari izatea (Herrnstein eta Murray,

1994; Snyderman eta Rothman, 1988). Bere ebaluatzeko tresnen aurka ere agertzen da, ohiko probek ezin baitituzte adimen guztiak neurtu eta euren emaitza kuantitati-boekin gizakiak modu zurrun eta gehiegizko batez sailkatu baitira (Gould, 1994). Aitzitik, gaitasun kognitiboa ingurunera egokitutako tresna kualitati-boekin ebaluatzen denean, gizakiek adimen desberdinak dituztela ikusten dela dio (Gardner eta Walters, 1993).

Gainera, Gardnerrek argudiatzen du proba horiek adimenaren teoria "horizontaletan" oinarritzen direla; hau da, tresna horiekin neurtutako burmuin gaitasunak antzera funtzionatzen dutela ezagutzaren arlo guztietan eta lege orokor baten arabera. Bestalde, bere ikusmoldea "bertikala" da; burmuina elementu ezberdinez osatua dagoela dio, moduluz osatua, eta horiek informazio ezberdina prozesatzen dute (Fodor, 1983). Horrela, gizabanako baten hizkuntzarako gaitasuna eduki dezake, baina ez espazioa bere hiru dimentsiotan antzematekoa. Ikasle bat azkarra izan daiteke arlo batean, baina beste batean ez. Komentatu dugun bezala, Gardnerrek adimenen independentzia erlatiboa azpimarratzen du, eta "g" faktorearen existentzia zalantzan jartzen ez badu ere, ematen zaion erabilera eta azalpen menperatzailea kritikatzeko (Gardner, 1995b). Finean, bere teoriak psikometrek (Jensen, 1969; Herrnstein eta Murray, 1994) defendatutako determinismo biologikoa baztertzen du. Bere ustetan, adimenak tendentzia biologikoen eta kultura bakoitzean dauden ikasteko aukeren arteko ondorio dira (Kornhaber, Krechevsky eta Gardner, 1990). Horregatik, gaitasun ezberdinak gizabanakoarentzat esanahia duten ingurunean ebaluatzeko eredu berri bat proposatzen du.

Piageten garapen kognitiboaren teoriak (1952) adimenaren jatorri ebolutiboa, dinamikoa eta kualitatiboa azpimarratzen ditu. Baina burmuin egiturak orokorrak eta unibertsalak direla ere onartzen du, eta ez espezifikoa eta kulturalak. Horrek, hasieran alboratzen duen ikuspegi piskometrikora hurbiltzen du. Piagetek munduko alderdi fisikoe-tatik abiatuta (kausaltatea, denbora, espazioa) pentsamendu logiko-matematikoaren arabera definitzen du burmuina. Gardnerrek, ostera, modu pluralean interpretatzen du, eta beretzat arrazonamendu logiko-matematikoa adimen mota bat baino ez da, adituak dituen egitura anitzetako bat (Feldman, 1994; Krechevsky eta Gardner, 1990a, 1990b). Beste alderdi batean ere badute desberdintasuna bi autore hauek: Piagetek baieztatu du garapen kognitiboa haurrak ikasteko dituen bat-bateko tendentzien ondorio dela, eta Gardnerrek dio garapen hori, gehienetan, ingurugiroan estimuluaren arabera dagoela, estimulu hori teknologikoa, soziala edo kulturala izan daitekeelarik.

Gardnerren teoriak eragin handia izan du psikologia kognitiboan eta hezkuntza sisteman (Kornhaber eta Drechevsky, 1995; Krechevsky eta Gardner, 1990a). Ikerketa asko sorrarazi ditu hasieratik (Gardner eta Boix-Mansilla, 1994; Krechevsky, 1991; Rauscher, Shaw eta Ky, 1993; Rosnow, Skleder eta Rind, 1995), eta adimen bakoitzaren garapenaren profilak identifikatzeko eta aztertzen saiatu dira (Kline, 1988; Campbell, Campbell eta Dickinson, 1993), eta baita adimen zehatzen azterketan sakontzen ere. Adibidez, adimen espaziala (Gardner, Hatch eta Torff, 1997; Warner, 1989; Brewer eta Campbell, 1991), musikala (Campbell eta Brewer, 1991) eta intrapertsonala (Armstrong, 1985).



Guztietan kezka ugari antzematen dira: adimen denak garatuko dituen eskola sortzea, curriculumean txertatuta lantzea, ingurune naturalan aztertzea (Teele, 1991; Lazea, 1994), beraien estimulatzeoko programa piskohezitzaileak egitea eta beste adimen ereduekin dituen erlazioak aztertzea (Sternberg, Williams, Gardner eta Blythe, 1991; Williams, Blythe, White, Li, Sternberg eta Gardner, 1996).

Hezkuntzari egindako ekarpenak

Nahiz eta Gardnerren teoria eskolari zuzendua ez egon, hasieratik

bertatik kuriositate handia sortuzuen hezitzaileen artean. Kalitatearen hobekuntzan eragina izan duen alternatiba teoriko eraginkorrenetakoa bihurtu du horrek. Horregatik, bere argitalpen ia guztietan aipatzen du eskola. Giza ezagutzak arazoak konpontzeko eta produktuak sortzeko erabiltzen dituen trebetasun anitzak aurkitzeko, garatzeko eta ebaluatzeko leku aproposak dela dio eskola.

Teoria honen aplikazioak bi multzotan egituratu ditugu hezkuntzan: zentroko proiektura bideratutako orientabide orokorrak eta adimenen hobekuntzara bideratutako programa psikohesitzaileak.

Orientabide orokorrak

Gardnerrek eta bere jarraitzaileek hezkuntza sisteman eragiten duten aldagai guztietan erakutsi dute interesa. Gehien aztertutakoen artean hauek aipa daitezke: heziketa helburuak, estrategia didaktikoak, eduki kurrikularrak, ebaluazioa, hezitzaileak eta ikasleak, eta gurasoak eta komunitatea.

Heziketa helburuak

Gardnerrek argi eta garbi proposatzen ditu hezkuntza maila ezberdinetako helburuak. Haur Hezkuntzan eskola saiatuko da ikasle bakoitzaren adimen anitzen lehen profil kognitiboak identifikatzen, ebaluatzen eta egiten. Horretarako, material anitzen erabilpena posible egiten duten ikaskuntza esperientziak bultzatuko ditu, adimen bakoitzaren miaketa ahalbidetzeko. Etaparen amaieran, hezitzaileek, gurasoek eta haurrak, bere burua ulertzeko gai den neurrian, honen gaitasun intelektualak aztertuko dituzte, bereziki buru potentziala eratu dezaketenak edo arreta berezia eskatzen dutenak egoera defizitarioan aurkitzeagatik. Emaizta biek

hurrengo etapako kurrikulua programatzeko balioko dute.

Lehen Hezkuntzan ikasle bakoitzaren bizitzan garrantzitsutzat dektatu diren gaitasunak ahal diren gehien estimulatu behar dira. Era berean, defizitarioenak konpontzen edo orekatzen saiatu behar da, etaparen amaieran ikasle guztiak gaur egungo gizarteak eskatzen dituen gutxieneko trebetasunak garatuak izan ditzaten.

Bigarren Hezkuntzan heziketa esfortzuak ikaslearen bokaziozko esperientziak -garatutako bere adimenekin erlazionatuta daudenak estimulatzerazuzendu behar dira. Horrela, esperientzia horietan sakonduko du, egiten duen lanarekin gozatuko du eta bere apendizai normaltasun osoz erregulatuko du, bere lanaren egile sentituz. Modu horretara lan eginez gero, karrera aukeratzea ikaslearen bizitzako gauza normala izango da, eta ez da zalantzarik eta noraez ez betetako zerbait izango, askotan gertatzen den bezala.

Azkenik, Goi Mailako Ikasketek gazteria gaitasun berezi batean

prestatuko du. Horrela, lan munduan eraginkortasunez sartzeko eta zeregin garrantzitsua izango duen gizarte kide sentitzeko prestatuko da.

Estrategia didaktikoak

Helburu garrantzitsuena adimen anitzen garapena baldin bada, estrategiek ere anitzak izan behar dute. Gainera, profil indibidualen eta ikasle bakoitzaren adimen potentziala maximizatzeko nahiaren arabera ezarri behar dira. Gardnerrek, beste orientabideen artean, hauek proposatzen ditu:

a) Gaitasunaren pausoak adierazten dituzten eta ekintzetan ikaslearen parte-hartzea bultzatzen duten diagramak erabiltzea.

b) Egituratutako galderak egitea ikasleari hainbat gauza pentsarazteko: nola burutzen ari den lana, zer zailtasun dituen, zer lortu duen eta abar.

c) Aktibitate bakoitzean hezkuntzaren lau modalitateak erabiltzea: hitz egin, entzun, idatzi eta irakurri. Ulermen adierazgarria, hausnarketa eta norberaren lanaren balora-



zioa laguntzen ditu.

d) Langai den edukiarekin erlacionatutako objektuak manipulatzen utzi. Ikasgai den gaiari buruzko kuriositatea pizten du, detaile esanguratsuak ikusten dituzte eta harreman interpersonalak sortzen dira talde txikitan lan eginez.

e) Ikasleek aurretik dituzten ezagutzak eta esperientziak identifikatu informazio berriarekin lotzeko, oroimena lantzeko eta akats kontzeptual posibleak gainditzeko.

f) Binaka, talde txikitan eta talde handitan lan egin. Ikasleek beraien artean ikasten ari direna eta nola ari diren aztertzen dutenean, ideiak argitzen dituzte, ezagutza zabaltzen dute, sortzaileagoak dira eta hobeto baloratzen dituzte lagunak.

Eduki kurrikularrak

Gardnerren arabera, bai irakasleek eta bai ikasleek beharrezkoak dituzten edukiak sailkatzen jakin behar dute, informazio gehiegi jasotzen baitute eta inork ezin baititu ezagutzaren alderdi guztiak jakin. Beraz, nahitaezkoa da aukeratzea, eta aniztasunez egin behar da. Adibidez, aholkatzen du Lehen Hezkuntzan hiru eduki akademiko soilik ikastea (matematika, hizkuntza eta gizarte edo natur zientziak), aktibitate fisiko bat eta arte adierazpena. Edukiak aurkezterakoan, irakasleek eta ikasleek edukien eta adimen desberdinen arteko harremanak ezarri behar dituzte.

Autore honentzat garrantzitsua da metakurrikulu deritzonarekin lan egitea, hots, eduki kurrikularraren eta ikaslearen alderdi kognitiboaren eta afektibo-sozialen garapeneraren arteko lotura bezala balio duten gaitasun multzoekin. Metakurrikulua batez ere gaitasun meta-kognitiboek eta apendizaiaren autoerregulazioak osatzen dute. Ikas-

leari lagundu egiten dio eskolako lanak zergatik egin behar dituen ulertzen, gai desberdinen arteko erlazioak eta transferentziak errazten ditu, zehar lerroei erantzuten die eta adimen intrapersonalarekin lotutako alderdiak indartzen ditu modu berezi batez. Azken kasu honetan automonitorizazioa bultzatzea komeni da, arazoak konpontzeko nork bere ezagutza erabiltzea, bizitza emozionala kontrolatzea -personala eta besteena- norberaren alderdi indartsuak eta ahulak ezagutzera, baita norberari gehien interesatzen zaiona, eta norberaren garapen eta akatsetatik ikastea (Gardner, 1993b).

Ebaluazioa

Gardnerrek adimen guztien eskolan ebaluazioak anitza izan behar duela baieztatu du. Ez arkatza eta paperezko galdetegi dagokienean soilik. Proposatzen du garapen akademikoa baloratzea ikas-kuntza prozesuan erabilitako tresnekin, eta ikasle bakoitza aurretik zuen esperientziarekin konparatzea. Erabil daitezkeen tresnen artean hauek aipatzen ditu: paper zorroa, pasadizoen bilduma, lan berezietan adibideak, grabaketak, elkarriketak, test kualitatiboak, eskolako aldizkaria, galdeketak eta abar. Ikasleek klaseko eguneroko ekintzetan ematen dituzten erantzunak ere adimen anitzen adierazgarri dira.

Ebaluazioa ikaskuntzan barneratutako prozesu jarraia izan daiteke, eta ikasturtean zehar ikasleak hainbat lanetan nola jarduten duten beha daiteke. Horrela, gaitasun baten lagin asko lortuko dira, eta gaurtze bakoitzaren aldakortasuna eta dinamismoa ikusiko dira. Informazio horrekin guztiarekin ikaslearen profil zehatzagoa lortuko da. Modu horretara, ikasleak heziketa-



ren planifikazioaren norabidea zehaztuko du, eta norabide horrek ebaluazioa.

Hezitzaileak eta ikasleak

Adimen anitzeko eskolako irakasleak apendizaiaren prozesua errazten, areagotzen eta optimizatzen lagunduko dioten ezaugarriak eduki behar ditu. Irakasteak, beste gauza batzuen artean, honako gaitasunak izatea eskatzen dio hezitzaileari:

- Ondo antolatutako eta osatutako ezagutzen oinarria izatea printzipio zientifikoaren kontzeptuak ongi ulertzeko, eta kontzeptu horiek irakasten dituen diziplinekin dituzten erlazio esanguratsuenak jakiteko.

- Oinarrizko gaitasun multzo bat edukitzea eguneroko lanak umorez, eraginkortasunez eta aparteko esfortzurik gabe bete ahal izateko.

- Ezagutza estrategikoa zabala

edukitzea nola irakatsi behar duen jakin dezan eta planifikazio, interbentzio eta ebaluazio egokia berma diezazkion.

- Pertsona orekatua izatea afektiboki eta moldatua sozialki.

- Adimen anitzen garapenari buruzko ahalik eta informazio osatuen edukitzea.

- Irakasten duenaren alderdi praktikoa azpimarratzeko kezka izatea, hots, bizitzeko hezitzea.

- Ikasleak etengabe motibatzen jakiteko ahalmena izatea.

Era berean, ikasleak erantzukizun handia du bere adimenen garapenean. Honek eskatzen du norberak bere ezagutza erakitzea, irakasleengandik independizatzeko pixkanaka, heziketa helburuak onartzea eta bere egitea, berauek lortu arte jarraitzea, besteek beraien gaitasunak hobetzeko duten eskubidea errespetatzea eta jarrera irekia eta malgua edukitzea hezkuntza sistemak suposatzen duen ororen aurrean. Irakaslearen eta ikaslearen ezaugarriak integratzen baldin badira, egoera ezin hobea lortzen da heziketa helburuak konpartitzea. Elkarlan honetan behatu ahal izango da adimen guztien lan bateratua.

Gurasoak eta komunitatea

Eskolako funtzionamenduan eta ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan gizarteko sektore guztien elkarlanak duen garrantzia behin eta berriz errepikatu izan da hezkuntzaren kalitateari buruzko txostenetan eta azterketetan. Heziketa eskaerak gero eta handiagoak diren garai honetan, eta ikaskuntza eskola ordutegira murriztea zaila den honetan, oso garrantzitsua da komunitateko hainbat eragileren parte-hartzea eskatzea eta erraztea.

Gardnerrek ez du alderdi hau ahazten. Horregatik, gurasoak es-

kolara hurbilarazten saiatzen da klaseetara eta jolas orduetara begiratzen joanez, bileretan eta ikasturteko programazioetan parte hartuz, seme-alaben prozesuaren jarraitpen etengabea eginez eta abar.

Komunitatearekin ere gauza bera egiten du. Nagusiki bi funtzio ezartzen dizkio honi. Bata, museo bat sortzea haurrek beren lanak erakutsi ditzaten, pertsona garrantzitsuen lanak ezagut ditzaten, artistekin harremana izan dezaten eta abar. Bestea, adimen bakoitzean adituena talde bat sortzea haurrek beraien erlazioatzeko aukera izan dezaten, aholkuak jaso ditzaten, beraien ereduak izan daitezten eta lan mundura sartzen lagun diezaien (Davis eta Gardner, 1993). Komunitatearen parte-hartze honek posible egiten du eskolako lanak berezko lekuetan egitea, eta beraz, ekologikoki baliodunak dira.

Eskola-familia-komunitatea lortzeko kezka horrekin batera, eta parte-hartzea eta inplikaturako sektoreen kopurua handiagoa diren

heinean, ikastetxeko antolaketa eta kudeaketa arazoak handitu egiten dira. Hori dela eta, Gardnerrek irudi akademiko berri bat sortzen du: hiru sektoreen arteko lotura egingo duen irakasle bat. Parte-hartzea antolatuko du eta antolaketa eta erabaki sistema azkarrak eta eraginkorrak diseinatuko ditu.

Aipatutako proposamen hauek guztiek ondorio garrantzitsuak dituzte ikasketa planak egiterakoan eta hezkuntza sistema osoaren politika definitzerakoan. Lehen Hezkuntzak ikasleen potentziala adimen anitzetan garatzen badu eta Bigarren Hezkuntzak potentzial hori bokaziozko esperientzian baieztan badu, emaitzek eragina izango dute Goi Mailako ikasketetan. Azken maila honek kontuan hartu behar du ikasleak zein profil intelektualekin etortzen diren, eta zein jarrera eta motibazio dituzten. Horren aurrean norberaren interesekin eta gizarteak eskatzen duenarekin bat datorren prestakuntza eskaini behar du.



Iragarkia
Elkarlanean

Kontrazala

ANTZA